

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3546

104/2016 DEKRETUA, uztailaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoan emango diren Oinarrizko Lanbide Heziketako 20 tituluren curriculumak ezartzen dituena.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1 artikulua ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorrak finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean aditzera emandako lanbide-prestakuntzako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta -tituluak, betiere Konstituzioaren 149.1.30 eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsultatu ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren arabera (hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak artikulua bakarreko bosgarren zenbakiaren bidez aldatua), lanbide-heziketako tituluen curriculumak garatuko dute hezkuntza-arloko administrazioek, oinarrizko curriculumetik abiatuta.

Otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren 1. artikuluko b letrak I.etik XIV.era bitarteko eranskinetan adierazi diren Oinarrizko Lanbide Heziketako tituluetakako bakoitzaren alderdi hauek zehazten ditu: oinarrizko curriculumak; prestakuntza-testuinguruaren oinarrizko parametroak; lanbide-moduluen eta konpetentzia-atalen arteko egokitasuna, haiek egiaztatu edo baliozkotu behar izanez gero; eta, konkurrentzia lehiakorra egonez gero, tituluaren bidez erdi-mailako zer heziketa-ziklori aplikatu dakizkiokeen onarpen-irizpide lehenetsiak (127/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzen dituena, hamalau oinarrizko lanbide-titulu onartzen dituena, haien oinarrizko curriculumak finkatzen dituena eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademiko eta lanbide-tituluak emateari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzen duena).

Ondoren, maiatzaren 16ko 356/2014 Errege Dekretuak Oinarrizko Lanbide Heziketako zazpi titulu ezartzen ditu 2. artikuluan, eta haien zehaztapenak I.etik VII.era bitarteko eranskinetan jaso dira (356/2014 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa, Lanbide Heziketako irakaskuntzen titulu-katalogoko Oinarrizko Lanbide Heziketako zazpi titulu ezartzen dituena).

Era berean, abuztuaren 28ko 774/2015 Errege Dekretuak Oinarrizko Lanbide Heziketako beste sei titulu ezartzen ditu 2. artikuluan, eta haien zehaztapenak I.etik VI.era bitarteko eranskinetan jaso dira (774/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Lanbide Heziketako irakaskuntzen titulu-katalogoko Oinarrizko Lanbide Heziketako sei titulu ezartzen dituena).

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen erabaki gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren konpetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluari eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 140.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektioari kalterik egiteke».

Ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoak, curriculumaren gutxieneko osagaiak arautzen ditu 5. artikuluan. Bestalde, 6.ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketako

heziketa-zikloen curriculumak garatzeko jarraibideak biltzen dira, ezertan galarazi gabe oinarrizko curriculumean ezarritakoa. Curriculumak garatzeko, beharrezko egokitzapenak egin ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko inguruabar sozial, ekonomiko, produktibo eta hezkuntzako araberak.

Dekretu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako 20 tituluren curriculumak ezartzea, lehenago aipatutako dekretuaren arabera.

Dekretu hau bideratzean, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostena eta gainerako aginduzko txostenak aztertuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, eta Jaurlearitza Kontseiluak 2016ko uztailaren 7an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan emango diren Oinarrizko Lanbide Heziketako 20 tituluren curriculumak ezartzen dira.

2. artikulua.– Tituluen identifikazioa.

Curriculumak dekretu honetan ezarrita dituzten tituluak arauotan ageri dira: 127/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzen dituen, hamalau oinarrizko lanbide-titulu onartzen dituen, haien oinarrizko curriculumak finkatzen dituen eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademiko eta lanbide-tituluak emateari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzen duena; 356/2014 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa, Lanbide Heziketako irakaskuntzen titulu-katalogoko Oinarrizko Lanbide Heziketako zazpi titulu ezartzen dituen; eta 774/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Lanbide Heziketako irakaskuntzen titulu-katalogoko Oinarrizko Lanbide Heziketako sei titulu ezartzen dituen.

3. artikulua.– Curriculumak identifikatzea.

1.– Dekretu honetan ezartzen diren Oinarrizko Lanbide Heziketako tituluen curriculumak bat datoz otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren III. eta IV. kapituluetan jasotakoarekin, baita dagokion arauak titulu bakoitzerako arautzen duen oinarrizko curriculumarekin ere.

2.– Beste eranskin hauetan daude dekretu honetan ezartzen diren Oinarrizko Lanbide Heziketako tituluen curriculumetako lanbide-moduluetako irakaskuntzak eta gainerako elementu espezifikoak:

I. eranskina: Nekazaritzako Lorezaintzako eta Lore Konposizioetako oinarrizko lanbide-tituluak.

II. eranskina: Arte Grafikoetako oinarrizko lanbide-tituluak.

III. eranskina: Merkataritza Zerbitzuetako oinarrizko lanbide-tituluak.

IV. eranskina: Elektrizitateko eta Elektronikako oinarrizko lanbide-tituluak.

V. eranskina: Eraikinak Eraberritu eta Mantentzeko oinarrizko lanbide-tituluak.

- VI. eranskina: Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarrizko lanbide-titulua.
- VII. eranskina: Informatika eta Komunikazioetako oinarrizko lanbide-titulua.
- VIII. eranskina: Bulegoko Informatikako oinarrizko lanbide-titulua.
- IX. eranskina: Ostatuko eta Ikuztegiko oinarrizko lanbide-titulua.
- X. eranskina: Ehunezko eta Larruzko Artikuluen Konponketako oinarrizko lanbide-titulua.
- XI. eranskina: Ibilgailuen Mantentze Lanen oinarrizko lanbide-titulua.
- XII. eranskina: Arotzeriako eta Altzarigintzako oinarrizko lanbide-titulua.
- XIII. eranskina: Elikagaien Industrietako oinarrizko lanbide-titulua.
- XIV. eranskina: Ile-apainketako eta Estetikako oinarrizko lanbide-titulua.
- XV. eranskina: Administrazio Zerbitzuetako oinarrizko lanbide-titulua.
- XVI. eranskina: Kirol Ontziak eta Laketontziak Mantentzeko Lanetako oinarrizko lanbide-titulua.
- XVII. eranskina: Etxeko Jardueretako eta Eraikin Garbiketako oinarrizko lanbide-titulua.
- XVIII. eranskina: Okintzako eta Pastelgintzako oinarrizko lanbide-titulua.
- XIX. eranskina: Etxebizitzen Mantentze Lanetako oinarrizko lanbide-titulua.
- XX. eranskina: Elementu Metalikoen Fabrikazioko oinarrizko lanbide-titulua.

3.– Dekretuan heziketa-ziklo bakoitzari dagokion eranskinen 2.2 atalean adierazita daude titulu bakoitzeko Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalen kualifikazioen eta kompetentzia-atalen zerrendak.

4.– Dekretuan heziketa-ziklo bakoitzari dagokion eranskinen 6. atalean adierazita daude heziketa-ziklo bakoitzeko lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen arteko egokitasunak, haiek egiaztatu edo baliozkotu behar izanez gero.

5.– Dekretuan heziketa-ziklo bakoitzari dagokion eranskinen 4. atalean adierazita daude lanbide-heziketako zentroetan irakaslan garatu ahal izateko gutxienezko espazioak eta ekipamenduak. Horretaz gain, zentroek nahitaez bete behar dituzte zenbait arau; hain zuzen ere, aukera-berdintasunari buruzkoa, denentzako diseinuari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa, eta lanpostuko segurtasunari eta osasunari buruzkoa.

6.– Hemen adierazita daude Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 42.4 artikuluan ezarrita dauden eta dekretu honen eranskinetan aipatzen diren eduki-bloke komunein erlazionatutako moduluak irakasleen betekizunak: otsailaren 28ko 127/2014 Dekretuaren 20. artikulua, eta azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuaren VI. eranskina (1834/2008 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta erregimen bereziko irakaskuntzetan irakasteko prestakuntza-baldintzak ezartzen dituen eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza-kidegoen espezialitateak zehazten dituen, uztailaren 17ko 665/2015 Errege Dekretuak emandako idazketan –665/2015 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta araubide bereziko ikasketetan irakasteari buruzko eta irakasleen hasierako prestakuntzari eta Bigarren Hezkuntzako irakasle kidegoen espezialitateei buruzko xedapen jakin batzuk garatzen dituen–).

7.– Hemen adierazita daude heziketa-ziklo bakoitzeko gainerako moduluetan irakatsi behar duten irakasleen betekizunak: otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren 20. artikulua, eta dekretu honetan heziketa-ziklo bakoitzari dagokion eranskineko 5. atala.

4. artikulua.– Hezkuntza-ingurunera egokitzea.

1.– Ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren eta antolamendukoaren ildotik, hari dagokio bere Ikastetxearen Ikasketa Proiektua ezartzea, eta proiektu horretan ezarriko ditu bere irakas-kuntza-lanaren ezaugarriak eta nortasuna zehazteko, eta lanbide-moduluen programazioak prestatzeari buruzko irizpideak finkatzeko beharrezko erabakiak.

2.– Ikastetxearen ikasketa-proiektuaren arabera, ikastetxeko sailtako irakasleei dagokie Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak osatzen dituzten lanbide-moduluen programa-zioak prestatzea eta onartzea. Horretarako, ezartzen diren helburu orokorrak izan behar dituzte kontuan; lanbide-modulu bakoitzean bildutako ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak errespetatu behar dituzte; eta irakaskuntzen erreferentziazko lanbide-profila hartu behar dute euskarri gisa.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ikasteko metodologia berritzaileak.

Ikastetxeek aukera izango dute, duten autonomia pedagogikoaz eta antolamendukoaz baliatuta, eta ikasketa-proiektuko aurreikuspenen arabera, dekretu honen eranskinetan lanbide-moduluek duten iraupena zertxobait aldatzea proposatzen duten proiektuak prestatzeko, heziketa-zikloak emateari buruzko estrategietan eta metodologietan oinarrituta. Hori egin ahal izango da, baldin eta ez bada aldatzen haien mailakako banaketa, eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzerako ezarri diren gutxieneko ordutegiak errespetatzen badira. Lanbide-heziketaren arloko eskumena duen sailburuordetzaren baimena beharko dute proiektuok.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

XVII. ERANSKINA, UZTAILAREN 7ko 104/2016 DEKRETUARENA

ETXEKO JARDUERETAKO ETA ERAIKIN-GARBIKETAKO OINARRIZKO LANBIDE-TITULUA

1.- Tituluaren identifikazioa

Etxeko Jardueretako eta Eraikin Garbiketako oinarrizko lanbide-titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Etxeko Jarduerak eta Eraikin Garbiketa.
- Maila: Oinarrizko Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Gizarte eta Kultura Zerbitzuak.
- Europako baliokidea: INSN-3.5.3. (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua).

2.- Lanbide-profila

2.1 Tituluaren konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra da etxeko garbiketako eta sukaldaritzako lanak egitea, arropa zaintzea eta pertsonak etxean zaintzea, baita eraikinetako, bulegoetako eta merkataritza-lokaletako oinarrizko garbiketa-eragiketak egitea ere, jarraibideen arabera eta kalitate-arauak errespetatuz, indarrean dauden ingurumen-, segurtasun- eta higiene-arauak kontuan hartuz eta ahoz eta idatziz gaztelaniaz komunikatuz eta, hala dagokionean, baita hizkuntza koofizial propioan edo atzerriko beste hizkuntzaren batean ere.

2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

- Osatutako lanbide-kualifikazioak:

a) Etxeko lanak. SSC413_1. (1179/2008 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, lanbide-kualifikazioen katalogo nazionala osatzen duena, hainbat lanbide-arlori dagozkien 1. mailako hamazazpi lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1332_1: Etxe partikularrean, arropa eta etxeko oihalak garbitzea, lixatzea eta oinarrizko jostelanak egitea, eta oheak prestatzea.

UC1330_1: Etxe partikularrak garbitzea.

UC1331_1: Etxe partikularrean, elikagaiak prestatzea: erostea, antolatzea, manipulatzeko, kuzinatzea eta prestatzea.

b) Gainazal eta altzarien garbiketa eraikin eta lokaletan. SSC319_1. (1368/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, lanbide-kualifikazioen katalogo nazionala osatzen duena, kultura- eta gizarte-zerbitzuak lanbide-arloko sei lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1087_1: Kristalak garbitzea eraikin eta lokaletan.

UC0996_1: Esku hartu beharreko espazioetan dauden altzariak garbitzea.

UC1088_1: Gainazalak garbitzea eta tratatzea makineria erabiliz eraikin eta lokaletan.

UC0972_1: Zoruak, paretak eta sabaiak garbitzea eraikin eta lokaletan.

- Osatu gabeko lanbide-kualifikazioa:

Sukaldaritzako oinarrizko eragiketak. HOT091_1. (295/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, lanbide-kualifikazioen katalogo nazionalan biltzen diren zenbait lanbide-kualifikazio ezartzen dituen, baita Lanbide Heziketaren Katalogo Modularrean txertatzen diren haien prestakuntza-moduluak ere):

UC0255_1: Sukaldaritzako oinarritzko hornikuntza-, aurreelaborazio- eta kontserbazio-eragiketak egitea.

2.3 Lanbide-ingurunea

2.3.1 Hauek dira zeregin eta lanpostu aipagarrienak:

Etxeko garbitzailea.
Etxeko sukaldaria.
Etxeko lisatzailea.
Etxeko langilea.
Garbitzailea.
Garbiketako peoi espezialista.
Garbiketako espezialista.
Beira-garbitzailea.

3.- Heziketa-zikloaren irakasgaiak

3.1 Tituluaren helburu orokorrak

a) Altzariak garbitzeko eta komunak, sukaldeak eta gelak desinfektatzeko teknikak aplikatzea dagokion prozedura hautatuz eta erabilitako produktuentzat ezarritako aginduei jarraikiz beharrezkoak diren baliabideak erabiliz.

b) Etxeko janari ohikoenez egindako platerak prestatzea eta elaboratzea, sukaldaritzako oinarritzko teknikak eta sukaldaritzako errezetak erabiliz eta higiene-arauak aplikatuz.

c) Etxeko arropa eta jantziak garbitzea, lisatzea eta eskuz jostea, eta arropa motaren arabera (izaera, ezaugarriak, egoera), arropa baldintza onetan mantentzeko dagokion teknika hautatzea eta aplikatzea.

d) Material desberdinetako zoruak, kristalak eta paramentuak garbitzeko teknikak aplikatzea eta beharrezko produktuak erabiltzea, norbera edo besteak arriskuan jartzea saihesteko erabilera-gomendioak jarraituta.

e) Gainazalak garbitzeko eta tratatzeko teknika industrialak aplikatzea, makina espezifiko nagusiak erabilia eta erabilitako produktuen erabilerarako eta kontserbazio- eta mantenu-eskuliburuetan ezarritako aginduak jarraituta.

f) Haurrak eta mendekoak ez diren pertsona helduak zaintzeko jarduerak modu simulatuan egitea, jarduerak bizikidetzaren unitatearen eguneroko premien edo behin-behineko premien eta betebeharreko zerbitzuaren arabera deskribatuta eta balioetsita.

g) Laguntza eskatzeko prozedurak edo ezarritako protokoloak deskribatzea, eta hala badagokio, oinarritzko bizi-euskarriko eragiketa sinpleak egitea, antzemandako gorabeherak jakinarazterakoan kontuan hartu beharreko alderdiak deskribatuta.

h) Ingurune naturalean izaten diren gertakariak ulertzea ezagutza zientifikoa jakintza integratu baten moduan erabiliz; halaber, ezagutzaren eta esperientziaren eremuetan oinarritzko arazoak identifikatu eta konpontzeko metodoak ezagutu eta aplikatzea.

i) Trebetasunak garatzea arazoak formulatu, planteatu, interpretatu eta konpontzeko; kalkulu matematikoaren arrazonamendua aplikatzea gizartean eta lan-ingurunean moldatzeko, eta bere baliabide ekonomikoak kudeatzea.

j) Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarritzko alderdiak identifikatu eta ulertzea, eta haiek norberaren eta taldearen osasunarekin lotzea; gainera, higiena eta osasuna baloratzea bizitzan ohitura osasungarriak garatu eta finkatzeko, zein inguruneetan dauden kontuan hartuta.

k) Natura-ondarearen zaintzarekin eta iraunkortasunarekin bat datozen ohiturak eta balioak garatzea, eta izaki bizidunen eta natura-ingurunearen arteko elkarreragina ulertzea, horrela gizakien ekintzak ingurumenaren orekan dituen ondorioak baloratu ahal izateko.

l) Informazio-iturrien oinarritzko trebetasunak garatzea, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikuspegi kritikoaz erabiltzea, ingurune pertsonal, sozial edo profesionalean informazioa lortu eta jakinarazteko.

m) Kultura- eta arte- ekoizpenen oinarritzko ezaugarriak ezagutzea, haien elementuak aztertzeko oinarritzko teknikak aplikatuz, errespetuz eta sentikortasunez jokatzeko kultura-aniztasunaren, ondare historiko-artistikoaren eta kultura- zein arte-adierazpenen aurrean.

n) Hizkuntza-trebetasun eta -abileziak garatu eta finkatzea eta eskatzen den zehaztasun, argitasun eta arintasun-maila lortzea, gaztelaniari eta, hala denean, hizkuntza koofizialari buruzko ezagutzak erabiliz gizarte-ingurunean, eguneroko bizitzan eta lan-jardueran komunikatzeko.

ñ) Atzerriko hizkuntzan oinarritzko hizkuntza-trebetasunak garatzea, ahoz eta idatziz komunikatu ahal izateko eguneroko bizitzan eta lan-jardueran ohikoak eta aurreikustekoak diren egoeretan.

o) Gaur egungo gertakarien arrazoiak eta ezaugarriak ezagutzea, baita bilakaera historikoari eta banaketa geografikoari dagozkionak ere, gaur egungo gizarteen ezaugarriak azaltzeko.

p) Printzipio demokratikoetan oinarritutako balioak eta jokaerak garatzea, eta ohiko harreman sozialetan eta gatazken konponbide baketsuan aplikatzea.

q) Prestakuntzarako dauden baliabideak eta eskaintzak alderatu eta hautatzea bizialdi osoko ikaskuntzarako, horrela lan-egoera berriei eta egoera pertsonal berriei egokitzeko.

r) Ekimena, sormena eta joera ekintzailea garatzea, baita norberarengan konfiantza izatea, parte-hartzea eta ikuspegi kritikoa ere, egoerak eta gorabeherak konpondu ahal izateko bai lan-jardueran bai eremu pertsonalean.

s) Lanak taldean egitea, norik bere betebeharrak hartuz, besteak errespetatuz eta beraiekin elkarlanean arituz, baita besteekiko tolerantziaz eta errespetuz ere, zereginak eraginkortasunez egiteko eta garapen pertsonalerako lagungarri izateko.

t) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informatzeko, komunikatzeko, ikasteko eta laneko zereginak errazteko.

u) Laneko eta ingurumeneko arriskuak lan-jarduerarekin erlazionatzea, norbera babesteko behar diren prebentzio-neurriak erabiltzeko xedez, eta beste pertsoneri eta ingurumenari kalterik ez egiteko.

v) Lanbide-jarduerako teknikak garatzea lanaren eraginkortasuna eta kalitatea ziurtatuz, eta, bidezkoa bada, laneko jardueretan hobekuntzak proposatzea.

w) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan harturik, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

3.2 Lanbide-moduluak

KODEA	LANBIDE-MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	KURTS OA
3098	Jantziak eta etxeko arropa mantentzeko lanak	132	1
3102	Etxeko sukaldaritza	198	1
3104	Etxe partikularrak, eraikinak, bulegoak eta lokalak garbitzea	132	1
E690	Etxeko eguneroko kudeaketarako laguntza	99	1
3146	Etxeko segurtasuna	66	1
3116	Makinekin garbitzea	72	2
3145	Bizikidetzta-unitatean mendekoak ez diren pertsoneri laguntzeko jarduerak.	120	2
E691	Egoera berezi iragankorretan dauden pertsoneri arreta ematea	168	2
3009	Zientzia aplikatuak I	165	1
3042	Zientzia aplikatuak II	144	2
3011	Komunikazioa eta gizartea I	165	1
3012	Komunikazioa eta gizartea II	168	2

E800	Laneko prestakuntza eta orientabidea	53	2
3147	Lantokiko prestakuntza	260	2
	Tutoretza eta orientabidea I	33	1
	Tutoretza eta orientabidea II	25	2
GUZTIRA		2.000	

3.3 Moduluen garapena

Lanbide-modulua: Jantziak eta etxeko arropa mantentzeko lanak

Kodea: 3098

Kurtsoa: 1

Iraupena: 132 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Jantziak eta etxeko arropa baliabide mekanikoak erabiliz edo eskuz garbitzen ditu, prozedura egokiak aplikatuta eta fabrikatzaileen jarraibideen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jantziak eskuz edo makinaz garbitzeko sortetan sailkatu eta antolatu ditu, hainbat irizpide kontuan hartuta (etxeko ohitura eta erabilera pertsonalak, arropa bakoitzaren egoera eta dagokion garbiketa-prozedura), eta fabrikatzaileak koloreari eta ehun motari dagokienez emandako jarraibideak interpretatuz.

b) Arropa sorta bakoitzari dagokion garbiketako eta zentrifugazio mekanikoko programa hautatu du, erabilitako etxetresna elektrikoaren erabilera-eskuliburu erabilia.

c) Garbiketa-produktuen (detergenteak, leungarriak, egokitzailak eta bestelakoak) dosifikazioa fabrikatzaileak adierazitako proportzioetan eta hautatutako programak eskatzen duen moduan egin du.

d) Eskuz garbitu beharreko jantziak eskuz garbitu ditu, jantzi motaren arabera beharrezkoak diren prozedura eta produktuak erabilia.

e) Garbiketa egokitzeko neurriak aplikatu ditu, espero zen emaitza eta lortutako emaitza kontuan hartuta, betiere jantzi motaren eta aplikatutako garbiketa-prozeduraren arabera.

f) Garbigailuaren funtzionamendu ona eta jantzien kontserbazioa bermatzeko beharrezkoak diren erabiltzaile-mailako mantentze-prozedurak aplikatu ditu, ur-hartuneak eta ur-irteerak, danborrak, iragazkiak eta bestelako elementuak fabrikatzailearen jarraibideen arabera gainbegiratuta.

g) Garbigailuaren erabilerarekin eta erabilitako produktuekin lotutako lan-arriskuak prebenitzeko neurriak aplikatu ditu.

2.- Jantziak eta etxeko arropa baliabide mekanikoak edo tradizionalak erabiliz lehortzen ditu, beharrezkoak diren prozedurak eta fabrikatzailearen jarraibideak justifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jantziak lehortzeko sailkatu eta antolatu ditu, ehun bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta eta fabrikatzailearen gomendioen arabera.

b) Arropa sorta bakoitzari dagokion lehortze-programa hautatu du, hainbat irizpide balioetsita (abiadura, beharrezko denbora eta hezetasun-maila), eta erabilitako etxetresna elektrikoaren erabilera-eskuliburuari jarraikiz.

c) Jantziak xukatu ditu eta lehorketan erabilitako produktuak dosifikatu ditu (besteak beste, kolore-babesleak eta leungarriak) hautatutako programaren arabera eta fabrikatzaileak adierazitako proportzioetan.

d) Lehorgailuaren funtzionamendu ona eta arropen kontserbazioa bermatzeko beharrezkoak diren erabiltzaile-mailako mantentze-prozedurak aplikatu ditu, ur-irteerak, danborrak, iragazkiak eta

bestelako elementuak fabrikatzailearen jarraibideen arabera gainbegiratuta.

e) Arropa eskuz eseki du adierazitako guneeetan, aireztapen-baldintzak eta bero-iturriekiko esposizio-baldintzak kontuan hartuta eta ehunen osotasuna mantentzeko prozedura egokiak aplikatuta.

f) Arropa lehortzeari lotutako prebentzio-neurriak aplikatu ditu, erabilitako prozedura eta, hala badagokio, makina kontuan hartuta eta garatutako errutinak eta saihestutako kalteak balioetsita.

3.- Jantziak eta etxeko arropa baliabide mekanikoak erabiliz edo eskuz lisatzen ditu, arropen kontserbazioa eta higiena bermatuta eta fabrikatzailearen jarraibideen arabera egokiak diren prozedurak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jantziak lisatzeko sailkatu eta antolatu ditu, ehun bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta eta fabrikatzailearen gomendioen arabera.

b) Arropa sorta bakoitzari dagokion lisatze-programa hautatu du, hainbat irizpide balioetsita (beharrezko denbora, temperatura eta lurruna), eta erabilitako etxetresna elektrikoaren erabilera-eskuliburuari jarraikiz.

c) Lisatzeko etxetresna elektrikoaren funtzionamendua bermatzen duten erabiltzaile-mailako mantentze-prozedurak aplikatu ditu fabrikatzailearen jarraibideen arabera.

d) Lisatzea osatzeko eta egokitzeo neurri osagarriak aplikatu ditu (babesleak ezartzea, arroparen kokapena eta egokitze-produktuak, besteak beste) lortutako emaitzak eta espero ziren emaitzak balioetsita.

e) Arropa lisatzeari lotutako prebentzio-neurriak –posturei eta segurtasunari dagozkienak– aplikatu ditu, erabilitako prozedura eta, hala badagokio, makina kontuan hartuta eta garatutako errutinak eta saihestutako kalteak balioetsita.

f) Arropak gune egokietan jasotzeko prestatu eta antolatu ditu, arropak behar bezala zaintzea bermatzeko beharrezko diren prozedura eta produktuak balioetsita.

4.- Jantzien eta etxeko arroparen oinarrizko konponketak egiten ditu, eta erabilitako tresnak arroparen ehunaren eta premiaren arabera hautatzen ditu, arropak konponduta eta itxura egokiarekin uzteko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Arroparen egoera egiaztatu du, eta bidezkoa izan denean, egin behar diren konponketak balioetsi ditu (zuloak, urratuak, askatutako krisketak eta botoiak, desegindako azpildurak eta irekitzen diren josturak, besteak beste).

b) Ehun edo arropa motaren eta atzemandako premiaren arabera beharrezko den teknika hautatu du eta emaitza erabilera-irizpideen eta irizpide estetikoaren arabera balioetsi du.

c) Tresnak eta erremintak erabilitako teknikekin lotu ditu, egin beharreko esku-hartzearen eta konponketa-premien arabera.

d) Oinarrizko konponketa-teknikak aplikatu ditu, haiek erabiltzeak izan ditzakeen zailtasunak eta arriskuak identifikatuta.

e) Jostotzara txukun mantendu du, barruko elementuak deskribatu ditu eta tresnak, erremintak eta materialak jasotzeko lekuak identifikatu ditu.

5.- Arropa esleitutako gunean txukun jartzen du, haren kontserbazioa eta erabilera errazten duten denborazko eta sasoiaren arabera irizpideak aplikatuta eta atsedinari, garbitasunari eta ordenari loturiko irizpideak balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Atsedan-tresnetako arropa aldatzeko eta maneiatzeko erritmoak eta erabilerak identifikatu ditu (burkoak iraultzea eta betetzea eta estalkiak jartzea, besteak beste), bizikidetzaren unitatearen edo

enpresaren ohituren arabera.

b) Oheko arropa aldatzeko eta atsedeen-tresnak maneiatzeko hainbat programazio ezarri ditu, higiena bermatuz eta identifikatutako erabileren eta ezarritako protokoloen arabera.

c) Oheko arropa jasotako jarraibideen arabera eta ohe mota, tenperatura eta lehentasun pertsonalak kontuan hartuta hautatu du.

d) Ohea egin aurreko zereginak egin ditu, esaterako gela eta arropak aireztatzea eta koltxoiaren egoera egiaztatzea.

e) Oheak egiteko ohiko prozedura gauzatu du, arropa eta erabilitako osagarriak jartzeko modua balioetsiz eta akats estetikoak saihestuz.

f) Ohea egiteko garaian prebentzio-neurriak aplikatu ditu, ohe motaren eta erabilitako arroparen arabera garatutako errutinak eta saihestutako kalteak balioetsita.

B) Edukiak:

1.- Jantziak eta etxeko arropa garbitzeko teknikak

Arropa garbiketarako sailkatzea eta banatzea.

Etxeko arropa eta jantziak jasotzea.

Ezaugarriak: zuntzak, koloreak, zikintasun-maila, tamaina.

Arroparen etiketak interpretatzea.

Tratamendu bereziak.

Arropak garbitu aurretik gainbegiratzea.

Etxeko arropa eta jantziak eskuz garbitzeko prozesua.

Etxeko arropa eta jantziak garbiketa automatiko bidez garbitzea.

Garbiketa-makinak: ezaugarriak eta erabilera-arauak.

Garbigailuaren eta garbigailu-lehorgailuaren oinarrizko mantentze-lanak.

Garbiketako eta orbanak kentzeko produktu espezifikoak aplikatzea.

Garbiketako eta orbanak kentzeko produktu espezifikoak dosifikatzea.

Orbanak kentzeko prozedura espezifikoak.

Arropa-garbiketaren arloko segurtasun- eta ingurumen-arauak.

2.- Jantziak eta etxeko arropa lehertzeko teknikak

Lehorketa-prozesuaren faseak.

Arropa esekitzeko eta jasotzeko teknika.

Etxetresna elektrikoaren tipologia: lehorgailua eta garbigailu-lehorgailua.

Lehorgailua eta garbigailu-lehorgailua erabiltzea.

Arroparen etiketak interpretatzea.

Lehorketa-prozesuko segurtasuneko eta energia minimizatze neurriak.

Mota honetako makinei dagozkien lehen mailako mantentze-lanak, prebentzioa eta gorabehera ohikoenei aurre egiteko jarduna.

3.- Arropa lisatzeko prozedurak

Lisatzeko prozesua.

Eskuz eta makinaz lisatzeko teknikak.

Arropa dagokion guneetan jartzeko prozesua.

Lisaketa-prozesuko segurtasuneko eta energia minimizatze neurriak.

Mota honetako makinei dagozkien lehen mailako mantentze-lanak, prebentzioa eta gorabehera ohikoenei aurre egiteko jarduna.

4.- Jantziak eta etxeko arropa josteko oinarrizko teknikak

Josteko teknikak hautatzea: ehun motak eta ehunen ezaugarriak.

Josteko materiala.

Eskuz eta makinaz josteko oinarrizko teknikak.

Jostotzara txukuntzea.

Joste-teknikak: albaintzea, errematatzea, barrena sartzea eta botoiak jostea, besteak beste.

5.- Arropa esleitutako gunean txukun jartzea eta gelak antolatzea

Atsedeen-tresnak balioestea, planifikatzea eta maneiatzea.

Oheko arropa aldatzeko errutinak balioestea, planifikatzea eta gauzatzea.

Ohe bat osatzen duten elementuak.

Oheko arroparen motak.

Oheak egiterakoan arrisku ergonomikoak prebenitzea.

Lanbide-modulua: Etxeko sukaldaritzak

Kodea: 3102

Kurtsoa: 1

Iraupena: 198 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Ezarritako aurrekontuaren arabera elikagaiak erosteko zerrendak egiten ditu, besteak beste, birjarpena bermatuta, bizikidetzaren unitatearen ezaugarrietara egokituta eta kontsumo arauak (iraungitze-data eta kontsumitzeko edo kontserbatzeko muga, besteak beste) errespetatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Sukaldeko ohiko erabilerako lehengaiak identifikatu ditu, barrietate eta ezaugarri nagusiak deskribatuta.

b) Jaki-tokian beharrezko elikagai eta produktuak daudela egiaztatu du, eta birjarpen-premiak identifikatu ditu.

c) Familia-inguruneko kontsumo-ohiturak aintzat hartuta, produktuak berrikusteko eta birjartzeko programa bat ezarri du.

d) Erosketa egiteko establezimendu mota egokiena zein den zehaztu du, betiere zerrendaren eta jasotako jarraibideen arabera.

e) Erosketa-zerrenda bateko produktuen etiketen ezaugarriak eta informazioa interpretatu ditu.

f) Erositako lehengaien eta produktuen iraungitze-data egiaztatu du.

g) Aurreikusitako elikagaiak eta produktuak erosi ditu, haiek segurtasun-baldintzetan garraiatzeko aukerak adierazita.

h) Produktuak garraiatzerakoan erosketa nola antolatu deskribatu du, besteak beste, kontserbazio-metodoak aplikatuta.

i) Erosketak establezimendutik etxera garraiatzeari lotutako arriskuak identifikatu ditu eta dagozkion prebentzio-neurriak aplikatu ditu.

2.- Elikagaiak eta etxean erabiltzen diren bestelako produktuak biltegitatzeko eragiketak egiten ditu, haiek guztiak higieneko eta erabilera egokiko baldintzetan zaintzeko eta kontserbatzeko erabilitako baliabideak justifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Produktuak sailkatu ditu, gorde eta kontserbatzeko behar duten jardun mota kontuan izanda.

b) Elikagaiak biltegitatzeko eta kontserbatzeko gauzatu beharreko manipulazio-prozedura deskribatu du, higie-neurriak muturreraino eramanda.

c) Ohiko erabilerako produktu gordinak, produktu erdilanduak eta amaitutako sukaldaritzako prestakinak kontserbatzeko eta ontziratze metodo sinpleak aplikatu ditu.

d) Produktu gordinak, produktu erdilanduak eta sukaldaritzako prestakinak izozteko prozedura deskribatu du.

e) Produktu gordinak, produktu erdilanduak eta sukaldaritzako prestakinak izozteko prozedurak aplikatu ditu.

f) Produktuak ipintzeko eta biltegitartzeko guneak identifikatu ditu, haien ezaugarriak eta premiak kontuan hartuta.

g) Elikagaien eta etxean erabiltzen diren bestelako produktuen biltegitratzean eta kontserbazioan arriskuak prebenitzeko prozedura higienikoak aplikatu ditu.

3.- Egin beharreko sukaldaritza-prestaketetako sukaldaritza-produktu ohikoenen aurreelaborazio-lanak egiten ditu, jardun-plan batean oinarrituz, kontsumo- eta iraungitze-irizpideak balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aurreelaborazioan gehien erabilitako produktuen, ebaketen edo piezen ezaugarriak deskribatu ditu eta sukaldaritza-prestaketa ohikoenekin lotu ditu.

b) Aurreelaborazioan erabilitako lehengaien ahalik eta etekinik handiena ateratzeko aplikagarriak diren irizpideak deskribatu ditu, alferrikako kostuak eta higadurak saihesteko.

c) Gehien erabiltzen diren lehengaiak ondorengo aurretiazko elaboraziorako behar dituzten lehengoratzeko-prozedurak deskribatu ditu.

d) Elaboraziorako osagaiei kozinatu aurretik aplikatzen zaizkien prozedurak (garbitu, desizoztu, moztu eta bestelakoak) deskribatu ditu.

e) Fruta, barazkiak edo latak ireki aurretik garbitzeko eskatutako tratamendua aplikatu du, kaltegabetasuna ziurtatzeko.

f) Laneko tresnak, erremintak eta ekipoak jasotako jarraibideen eta egin beharreko jardueraren arabera hautatu eta erabili ditu.

g) Erabilitako erreminten eta ekipoen funtzionamendua bermatzen duten erabiltzaile-mailako mantentze-lanak egin ditu fabrikatzailearen jarraibideen arabera.

h) Laneko tresnak, erremintak eta ekipoak erabiltzeari lotutako arriskuak identifikatu ditu eta dagozkion prebentzio-neurriak aplikatu ditu.

i) Osasun-arriskuak prebenitzeko oinarritzko higiene-arauak aplikatu ditu elikagaien aurretiazko elaborazio-lanetan.

4.- Menu sinpleak prestatzen ditu, etxeko sukaldaritza-teknikak aplikatuta eta hartzaileen ezaugarrien arabera ezarritako jardun-planari jarraituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mahaikideen ezaugarriak eta premiak hartu ditu kontuan.

b) Sukaldaritza-errezeta ohikoenen elaborazioa deskribatu du, erabili beharreko osagaien kantitateak eta denbora mahaikide kopuruarekin erlazionatuta.

c) Menuak elaboratzeko erabiltzen diren sukaldeko tresneriaren, tresnen eta etxetresna elektrikoaren ezaugarriak identifikatu eta deskribatu ditu.

d) Sukaldeko oinarritzko ekipo, makina eta erremintak erabili ditu, sukaldaritzako elaborazio mota bakoitza tresna egokiek erlazionatuta.

e) Etxeko sukaldaritzako teknika nagusiak hautatu eta erabili ditu (erre, egosi, frijitu, zuritu eta xehatu, besteak beste), betiere prestatu beharreko janari motarekin erlazionatuta.

f) Etxeko sukaldaritzako teknika nagusiak elaboratu beharreko errezetaren jarraibideen arabera erabili ditu.

g) Prestatutako janaria kontserbatzeko arauak lan-planaren arabera aplikatu ditu.

h) Osasun-arriskuak prebenitzeko oinarritzko higiene-arauak aplikatu ditu etxeko sukaldaritza-tekniketan.

5.- Baxera, tresnak, etxetresna elektrikoak, sukaldea eta laneko lekua garbitzen ditu, efikazia- eta antolaketa-irizpideak aplikatuta eta laneko jardun-plana jarraituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Elikagaiak prestatzeko, kozinatzeko, kontserbatzeko eta kontsumitzeko erabilitako baxera eta tresnak sailkatu ditu, eta haien garbiketarako prozedura hautatu du.
- b) Eskuz garbitzeko eragiketak ordena egokiari jarraikiz eta produktuak eraginkortasunez aplikatuta egin ditu.
- c) Baxera eta tresnak ontzi-garbigailuaren ataletan txukun jarri ditu leku guztia arrazoizko eran betez, programa hautatuz eta uraren zentzuzko erabilera bermatuz.
- d) Sortutako etxeko hondakinak botatzeko, indarrean dagoen ingurumen-araudiaren arabera sailkatu ditu.
- e) Baxera eta tresna garbiak ordenatu eta txukundu ditu, eta leku egokian jarri.
- f) Gunea eta etxetresna elektrikoa garbitzeko metodoa gunearen ezaugarrien arabera aukeratu da.
- g) Sukaldea eta etxetresna elektrikoak garbitzeari lotutako arriskuak identifikatu ditu eta dagozkion prebentzio-neurriak aplikatu ditu.
- h) Sukaldea eta erabilitako etxetresna elektrikoak garbitzeari lotutako balizko arriskuak identifikatu ditu eta gauzatu beharreko jardun prebentiboak adierazi ditu.

6.- Elikagaiak manipulatzeko eta janariak prestatzeko eragiketetan elikagai-toxiinfekzioen arriskuak identifikatzen eta prebenitzen ditu eta etxeko sukaldaritzarekin lotutako oinarritzko arauak eta baldintza higieniko-sanitarioak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Higiene pertsonaleko arauak aplikatu ditu.
- b) Instalazioekin, lokalekin, lanabesekin eta elikagaien manipulazioarekin lotutako arau higieniko-sanitarioak aplikatu ditu.
- c) Uraren osasungarritasunarekin lotutako arau higieniko-sanitarioak aplikatu ditu.
- d) Higienea bermatzeko, etxeko sukaldaritzan gehien erabilitako garbiketa-produktuen eta -tresnen etiketak interpretatu ditu.
- e) Baimendutako garbiketa-produktu eta -tresna egoki nagusiak identifikatu ditu haien xedea kontuan hartuta.
- f) Hondakin solidoak modu egokian bota ditu gaixotasunen transmisioa saihestearren.
- g) Azaleko urak modu egokian bota ditu hustubideetatik.
- h) Elikagai-toxiinfekzio ohikoenak deskribatu ditu eta balizko kausak identifikatu ditu.
- i) Elikagai-toxiinfekzio nagusiekin lotutako arriskuak identifikatu ditu.
- j) Elikagaien araudi higieniko-sanitarioa ez betetzeagatiko elikagai-toxiinfekzio nagusiek sortutako eragin larriak deskribatu ditu.

B) Edukiak:

1.- Etxerako elikagaiak eta produktuak erosteko prozedura

Erosketa-zerrenda egiteko prozesua.

Establezimenduak hautatzeko prozesua.

Eskaintzak.

Produktuen hautaketa.

Etxeko sukaldaritzan ohiko moduan erabiltzen diren produktuen iraungitze-data.

Jarrera-osasuna. Kargak garraiatzeko teknikak.

2.- Elikagaiak eta etxean erabiltzen diren bestelako produktuak biltegitatzeko eragiketak egitea

Produktuak ezaugarrien arabera banatzea.

Elikagaiak biltegitatzeko eta kontserbatzeko manipulazio-prozedura.

Elikagaiak kontserbatzeko eta ontziratze metodo sinpleak.

Izozte-prozedura.

Arriskuak prebenitzeko higiene-prozedurak biltegitatzean eta kontserbazioan.

3.- Sukaldaritzaren produktuen aurretzako elaborazioko eragiketak egitea

Kozinatu aurreko prozedurak.

Fruta eta barazkiak garbitu eta ebaki aurretik egin beharreko garbiketa eta prestaketak.

Sukaldaritzako produktuei oinarritzko ebaketak egiteko prozedurak.

Oinarritzko eragiketak. Elementuak.

Lan-arriskuen prebentzioko neurriak.

4.- Sukaldaritzako etxeko teknikak aplikatzea

Egosteko teknikak.

Teknika batzuk eta besteak gauzatzeko prozedurak.

Lan-arriskuen prebentzioko neurriak.

Sukaldaritzako ontziteriaren, lanabesen eta erreminten deskribapena eta sailkapena.

Errezetak eta fitxa teknikoak, besteak beste.

Jasotzen dituen jarraibideak interpretatzea eta betetzea.

Elikagaiak elaboratzeko edo manipulatzeko edozein prozesutan higieneko gutxieneko arauak aplikatzea.

5.- Baxera, tresnak, etxetresna elektrikoak, sukaldea eta lan-eremua garbitzeko prozedurak aplikatzea

Gainazalak garbitzeko eta higienizatzeko prozedurak.

Etxetresna elektrikoak garbitzeko teknikak: garbiketa eta lehorketa.

Baxera eta lanabesak garbitzeko teknikak, eskuzko prozesuak eta automatikoak.

Garbiketako produktuak eta lanabesak aplikatzea.

Lan-arriskuak prebenitzea.

6.- Elikagai-toxiinfekzioen arriskua sukaldaritzaren eragiketetan

Higiene pertsonaleko arauak.

Hondakin solidoen ezabaketa.

Azaleko uren ezabaketa.

Elikagai-toxiinfekzio ohikoenak.

Garbiketa eta desinfekzioa.

Lanbide-modulua: Etxe partikularrak, eraikinak, bulegoak eta lokalak garbitzea

Kodea: 3104

Kurtsoa: 1

Iraupena: 132 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Etxea garbitzeko prozeduretan eragiten duten faktoreak identifikatzen ditu eta gune bakoitzean egin daitezkeen ekintzak eta gunearen ezaugarriak eta inguruabarrak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Garbiketa-prozedura nagusiak deskribatu ditu, gelaren ezaugarriak kontuan hartuta eta gelaren erabileraren eta hura erabiltzen duten pertsonen arabera.

b) Uraren eta energiaren erabilera arduratsua deskribatu du etxe partikularren garbiketari dagokionez.

c) Guneak aireztatzearen garrantzia deskribatu du eguraldia eta meteorologia-baldintzak kontuan hartuta.

d) Garbiketa-produktuen ezaugarri, funtzio eta aplikazio modu nagusiak deskribatu ditu, garbiketa-prozeduren arabera.

e) Garbiketa-produktuen etiketen eta fitxa teknikoaren informazioa eta manipulazio-baldintzak interpretatu ditu.

f) Etxeetako garbiketa egiteko produktu eta ekipoen erabilpenarekin lotutako arriskuen oinarritzko prebentzio-arauak aplikatzearen garrantzia deskribatu du.

2.- Altzariak eta objektuak beharrezko prozedurak, lanabesak eta produktuak aplikatuz garbitzen ditu, jasotako eskakizunen eta jarraibideen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Garbitu beharreko etxe partikularren, eraikinen, bulegoen eta lokalen garbiketa baldintzatzen duten faktoreak deskribatu ditu, materialak ezagututa.

b) Garbitu beharreko guneetan dauden materialak eta altzari motak identifikatu ditu eta haien ezaugarriak eta garbiketaren kontuan hartu beharrezkoak deskribatu ditu.

c) Jardueren sekuentzia logikoa, erabili beharreko baliabideak, produktuak eta lana egiteko aurreikusitako denbora deskribatu ditu.

d) Garbiketa-lanabesak eta -produktuak garbitu beharreko altzari eta objektu mota kontuan hartuta sailkatu ditu.

e) Garbitu aurreko zereginak egin ditu, beharrezko aireztapen- eta egikaritze-baldintzak prestatuz.

f) Etxean ohikoenak diren altzariak eta dekorazio-objektuak beharrezko prozedurak, lanabesak eta produktuak hautatuz garbitu ditu, jasotako eskakizunen eta jarraibideen arabera.

g) Garbiketa bat egin du, altzarien eta etxeko objektuen ezaugarriak mantentzen direla bermatzeko beharrezkoak diren produktuak erabilia.

h) Garbitutako guneetako hondakinak modu selektiboan kendu ditu, ingurumen-onurak balioetsita.

i) Lana amaitutakoan, garbitutako lekua ikuskatu du zikinkeria-hondarrak detektatzeko, ezarritako lan-plana betez; eta, hala dagokionean, eskatutako dokumentazioa bete du.

j) Erabilitako lanabesak garbitu ditu, haien kontserbazioa bermatzeko.

k) Etxeko garbiketa egitearekin lotutako lan-arriskuak prebenitzeko oinarritzko neurriak aplikatu ditu.

3.- Paretak, leihoak, atek, zoruak eta alfonbrak beharrezko prozedurak, lanabesak eta produktuak aplikatuz garbitzen ditu, jasotako eskakizunen eta jarraibideen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Etxe partikularren, eraikinen, bulegoen eta lokalen barruko paretak, leihoak, atek, zoruak eta alfonbrak garbitu aurreko zereginak egin ditu, beharrezko aireztapen- eta egikaritze-baldintzak prestatuz.

b) Paretak, leihoak, atek eta zoruak beharrezko prozedurak, lanabesak eta produktuak hautatuz garbitu ditu, jasotako eskakizunen eta jarraibideen arabera.

c) Alfonbrak ehunaren arabera erabili beharreko prozedurak, lanabesak eta produktuak hautatuz garbitu ditu, jasotako eskakizunen eta jarraibideen arabera.

d) Garbiketa bat egin du, pareten, leihoen, ateen, zoruaren eta alfonbren ezaugarriak mantentzen direla bermatzeko produktu egokiak erabilia.

e) Pareten, leihoen, ateen, zoruaren eta alfonbren garbiketaren hondakinak modu selektiboan kendu ditu, ingurumen-onurak balioetsita.

f) Lana amaitutakoan, egindako garbiketa ikuskatu du, gera daitezkeen zikinkeria-hondarrak detektatzeko.

g) Erabilitako lanabesak garbitu eta sailkatu ditu, haien kontserbazioa bermatuta.

h) Etxeko garbiketa egitearekin lotutako lan-arriskuak prebenitzeko oinarritzko neurriak aplikatu ditu.

4.- Kristalezko gainazalak beharrezko prozedurak, lanabesak eta produktuak aplikatuz garbitzen

ditu, jasotako eskakizunen eta jarraibideen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kristalezko gainazal mota desberdinen ezaugarriak haien garbiketarako erabilitako prozedurekin lotu ditu.
- b) Kristalak garbitzeko osagarriak eta baliabide lagungarriak identifikatu ditu eta haien ezaugarriak eta erabilera deskribatu ditu.
- c) Kristalak garbitu ditu, garbiketarako beharrezkoak diren osagarriak eta baliabide lagungarriak erabilia.
- d) Inguruko elementuak garbitu ditu: markoak, pertsianak eta burdin hesiak, besteak beste.
- e) Egindako garbiketaren eraginkortasuna eta erabilgarritasuna egiaztatu ditu.
- f) Arriskuak prebenitzeko ezarritako neurriak aplikatu ditu, garbiketa-lanen ezaugarrien arabera.
- g) Altuerako lanetarako espezifikoak diren segurtasun-neurriak aplikatu ditu.

5.- Bainugelak eta komunak beharrezko higienizazio- eta desinfekzio-prozedurak, lanabesak eta produktuak aplikatuz garbitzen ditu, jasotako eskakizunen eta jarraibideen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Etxeetako, bulegoetako eta lokaletako bainugelen eta komunen garbiketa baldintzatzen duten faktoreak deskribatu ditu.
- b) Etxeetako, bulegoetako eta lokaletako bainugelen eta komunen garbiketa baldintzatzen duten faktoreak deskribatu ditu.
- c) Bainugeletan erabiltzen den desinfekzio-prozesua deskribatu du.
- d) Komunak desinfektatzeko eta higienizatzeko prozesua deskribatu du, arlo horretako osasun publikoko araudia kontuan hartuta.
- e) Garbiketa-lanabesak eta produktuak identifikatu eta sailkatu ditu, erabilera- eta dosifikazio-jarraibideen arabera, bainugelen erabilera mota kontuan hartuta eta aurreikusitako jardunei jarraikiz.
- f) Bainugelak eta komunak garbitu, desinfektatu eta higienizatu ditu.
- g) Ontzi espezifikoetan utzitako hondakinak ezabatzeko ekintzak egin ditu, haien higienizazioa eta desinfekzioa bermatuta.
- h) Bainugeletako hondakinak modu selektiboan kendu ditu, ingurumen-onurak balioetsita.
- i) Komunetako euskarrien mantentze-lanak egin ditu.
- j) Lana amaitutakoan, bainugeletan eta komunetan egindako garbiketa ikuskatu du, gera daitezkeen zikinkeria-hondarrak detektatzeko.
- k) Etxeetako bainugelen eta bulego eta lokaletako komunen garbiketa egitearekin lotutako lan-arriskuak prebenitzeko oinarritzko neurriak aplikatu ditu.

B) Edukiak:

1.-Etxeko garbiketako prozeduretan erabakigarriak diren faktoreak

Gelak garbitzeko prozedurak.

Guneak aireztatzea.

Egindako lana egiaztatzea.

Garbiketa-produktuak erabiltzetik datozen lan-arriskuak.

Norbera babesteko ekipoak erabiltzea.

Jarrera-osasuna.

2.- Altzariak eta objektuak garbitzea.

Garbitu beharreko guneen eta elementuen tipologia.

Materialen eta gainazalen osaera identifikatzea.

Materialen eta gainazalen ezaugarriak zehaztea.

Garbiketa-lanabesak hautatzea eta erabiltzea.
 Garbiketa-lanabesak kontserbatzeko prozesuak.
 Garbiketa-produktuen tipologia.
 Garbiketa-produktuak behar bezala ez erabiltzetik datozen osasunerako arriskuak identifikatzea.
 Etxeko altzariak eta objektuak garbitzeko teknikak.
 Teknika bakoitzeko jardueren sekuentziazioa.
 Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia.

3.- Paretan, leihoen, ateen, zoruen eta alfonbren garbiketa

Jasotako jarraibideak interpretatzea.
 Zoruen, zoladuren, paretan eta sabaien materialen eta gainazalen osaera identifikatzea etxeetan, eraikinetan, bulegoetan eta lokaletan.
 Garbiketa-lanabesak eta -produktuak egin beharreko garbiketa motaren arabera hautatzea.
 Etxetresna elektrikoaren erabilera: erabilerrazak diren xurgagailuak.
 Hondakinak sailkatzea eta banatzea.
 Hondakinak edukiontzi egokietara botatzea.
 Garbiketa-lanak ezarritako planaren arabera egiaztatze teknikak.
 Norbera babesteko ekipoak erabiltzea.
 Lan-arriskuen prebentzioari buruzko arauak.

4.- Kristalezko gainazalen garbiketa

Kanpoaldeko eta barnealdeko kristalak garbitzea.
 Laneko lanabesen eta erreminten erabilera: jarraitu beharreko irizpideak.
 Garbiketa-produktu espezifikoak erabiltzea.
 Kristalak garbitzeari lotutako arriskuak identifikatzea.
 Norbera babesteko ekipoak erabiltzea.
 Segurtasun-neurriak aplikatzea lan-ingurunean jendea dagoenean.

5.- Bainugelen garbiketa

Etxeetako bainugelak garbitzeko eta desinfektatzeko teknikak.
 Bulego eta lokaletako komunak garbitzeko, desinfektatzeko eta higienizatzeko teknikak.
 Etxeetako bainugeletako eta bulego eta lokaletako komunetako orban motak.
 Hondakinak sailkatzea eta banatzea.
 Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia.

Lanbide-modulua: Etxeko eguneroko kudeaketarako laguntza

Kodea: E690

Kurtsoa: 1

Iraupena: 99 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Erabiltzaileekin egoten da eta eguneroko jarduerak egiten laguntzen die .

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonak eguneroko lanak egiteko zer nolako laguntza-premiak dituzten identifikatu du.
- b) Egunerokotasunean, segurtasunean, komunikazioan, bizikidetzan eta harreman sozialean eragina duten etxeko eta haren ingurunean ingurumen-faktoreak eta elementu espazial eta materialak identifikatu ditu.
- c) Autonomia pertsonaleko ohiturak sortzera, mantentzera eta hobetzera zuzentzen diren esku hartzeko teknikak eta prozedurak deskribatu ditu.

d) Etxeko guneen, altzarien eta tresnen banaketa, eguneratzea eta seinaleztapena zehaztu eta aplikatu ditu, pertsonen premietara egokituta, eta haien mendekotasunaren, ohituren eta segurtasunaren arabera.

e) Jardueren garapenari eta pertsonaren adierazpenei behatzeko teknikak eta tresnak aplikatu ditu; horretaz gain, premia bereziak, arrisku-faktoreak, eta bilakaera fisikoa eta psikosoziala identifikatu ditu eta lortutako datuak erregistratu ditu.

f) Erabiltzaileekin egon da eta lagundu egin die, haien autonomia pertsonala erraztuko duten irizpideak eta estrategiak aplikatuta.

g) Jardueraren garapena bermatzeko beharrezkoak diren baliabide espazialak eta materialak prestatu eta aplikatu ditu.

h) Jardueran zehar sortzen diren gatazkak edo gorabeherak ebatzi ditu prozedura eta teknika egokiak erabilita, eta, hala dagokionean, ezarritako bideak erabilita, bere eskumena gainditu dutenean.

2.- Pertsonen eta haien familia-inguruneari buruzko kudeaketak ebazten laguntzera zuzendutako esku-hartzeak aztertzen eta gauzatzen ditu eta komunitateko baliabide eta zerbitzuak eskuratzea errazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Adinekoen, haurrei eta gaixoei zuzenduta dauden baliabide komunitarioak identifikatu ditu.

b) Prestazio ohikoenak eskatzeko bideak eta beharrezko kudeaketak identifikatu ditu eta gizarte laguntzako eta okupazio- eta -aisialdiko baliabideak eta prestazio ekonomikoak eta bestelako prestazioak biltzen dituen fitxategi bat egin du.

c) Dokumentazio pertsonala eta etxeko dokumentazioa (sanitarioa, bankukoa, gutunak, etxeko mantentze-lanei buruzkoa eta bestelakoak) aurkitzeko, antolatzeko eta artxibatzekeko prozedurak aplikatu ditu.

d) Laguntzak, prestazioak eta zerbitzuak eskatzeko formatuak eta ereduak identifikatu eta bete ditu.

e) Etxeko kasuen deribazioaren arrazoi nagusiak aipatu ditu eta dagozkien zerbitzu eta profesionalak identifikatu ditu.

f) Adineko batek edo haur batek etxetik kanpo behar izan ditzakeen laguntza-egoerak identifikatu ditu.

g) Pertsonaren jardun autonomoaren maila, laguntza-premiak eta baliabide eta zerbitzu egokiak identifikatu ditu.

h) Premia horiek betetzeko egin beharreko esku-hartzeak eta kudeaketak, pertsonaren jardun autonomoaren maila, haren eta profesionalaren ingurunea eta pertsona profesional eskudunetara bideratzeko premia zehaztu ditu.

i) Horiek guztiak kontrolatzeko eta laguntzako eta eragile egokiei informazioa transmititzeko esku-hartzeen jarraipena egiteko eta erregistratzeko prozedurak deskribatu ditu.

j) Profesionalari ematea dagokion babesa eta laguntza identifikatu eta gauzatu du, jardun-baliabide, -prozedura eta -estrategia egokiarekin.

B) Edukiak:

1.- Egoera berezi iragankorretan dauden pertsonen autonomia pertsonaleko esku-hartze estrategiak lantzea.

Etxeko eguneroko egoeretan autonomia fisikoko ohiturak mantentzea eta haietan trebatzea. Etxearen ezaugarriak.

Etxeko guneen, altzarien eta tresnen banaketa, eguneratzea eta seinaleztapena.

Gizarte-harremanetan, kudeaketak ebazten eta familia-ingurunean ondoan egoteko eta laguntzako esku-hartzeak.

Baliabide komunitarioak.

Laguntzak, prestazioak eta zerbitzuak eskatzea.

2.- Gizarte-harremanetan, kudeaketak ebazten eta familia-ingurunean ondoan egoteko eta laguntzeko esku-hartzeak.

Bizikidetzaren unitateak abiatuta zuzeneko laguntzako profesionalak dituen funtzioak eta zeregina. Esku hartzeko arloak.

Jardun-estrategiak, mugak eta deontologia.

Esku-hartze ohikoenak. Izapideak. Jarraipena.

Dokumentazio pertsonala eta bizikidetzaren unitatearena.

Dokumentazioa prestatu, erregistratu eta kontrolatzeko oinarritzko teknikak.

Konfidentzialtasuna beste pertsonen dokumentazioa erabiltzerakoan.

Jardun-mugak eta deontologia profesionala errespetatzea.

3.- Eguneroko bizitzarako laguntza teknikoak eta teknologikoak.

Etxeko jardueretarako laguntza teknikoak.

Altzariak eta etxebizitza eta bestelako higiezinertarako egokitzapenak.

Produktuak eta ondasunak manipulatzeko laguntza teknikoak.

Giroa hobetzeko laguntza teknikoak, makineria eta erremintak.

Aisialdirako laguntza teknikoak.

Ordenagailu pertsonalak. Internet. Posta elektronikoa.

Beste laguntza batzuk

Lanbide-modulua: Etxeko segurtasuna

Kodea: 3146

Kurtoa: 1

Iraupena: 66 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Etxeko instalazioen (elektrizitatea, gasa eta ur-eroanbideak) segurtasunari lotutako jarduerak gauzatu dituzten etxean bertan, instalazioen funtzionamendu egokia egiaztatuta, eta balizko arrisku-puntuak eta esku hartzeko jarraibideak balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Plano edo krokisekin lagunduta, etxeko instalazioak eta haien funtzionamendua identifikatu dituzten baita arrisku-puntu nagusiak ere.

b) Instalazioak gainbegiratu dituzten, narriadurazko, funtzionamendu txarreko edo prebentzio-neurririk gabeko balizko egoerak identifikatu dituzten eta egoera horiek ebazteko aukerak proposatu dituzten.

c) Arrisku elektrikoko puntuak, etengailuak, korrante-harguneak eta argi-puntuak identifikatu dituzten eta haien eta dagozkien babes-elementuen erabilera egokiarekin lotu dituzten.

d) Txorrotetako eta hustubideetako elementuak (iragazkiak, gomak edo antzekoak, besteak beste) identifikatu dituzten eta balizko matxurekin eta haien prebentzioarekin lotu dituzten.

e) Etxeko pertsona kaltebereenek (adinagatik edo muga fisikoengatik) etxeko instalazioetarako sarbidea edo haiekiko ustekabeko kontaktua ez izateko baliabideak jarri dituzten, haien erabilgarritasuna balioetsi du eta alternatibak proposatu dituzten.

f) Hainbat arazoren aurrean (deskarga elektrikoak, gas-ihesak edo ur-instalazioaren matxurak) babeserako erabiltzen diren elementuak identifikatu dituzten eta haien funtzionamendua egiaztatu du pertsonengan edo objektuengan eragin ditzaketen arriskuak saihesteko.

g) Etxeko eroanbideekin lotutako balizko istripuekiko edo arrisku-egoerekiko jardun-jarraibideak deskribatu dituzten, azkar baina behar den lasaitasunarekin jardutea balioetsita.

2.- Produktu toxikoekiko edo egoera txarrean dauden elikagaiekiko esposizioarekin edo halakoak irensteararekin lotutako prebentzio-neurriak aplikatu dituzten, alde batetik, arriskuzko egoerak eta jarrerak eta, bestetik, esku hartzeko jarraibideak balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Inguru jakin batean produktu toxikoak edo arriskutsuak irensteak edo haiekiko esposizioak eragin ditzakeen arriskuak identifikatu ditu, fabrikatzailearen informazioa interpretatuta.

b) Egoera txarrean dauden elikagaiak jateak eragin ditzakeen arriskuak identifikatu ditu, elikadura-osasunari eta -higieneari buruzko informazioa oinarri gisa hartuta ohiko sintomatologiak balioetsita.

c) Hainbat biltegiratze- eta kontserbazio-neurri ezarri ditu, ustekabeko irensteak, isuriak edo ontzien egoerek eragindako toxikotasun-areagotzeak saihesteko eta haietara arrisku handieneko pertsonen sarbidea prebenitzeko.

d) Elikagaiak (gordinak nahiz kozinatuak) kontserbatzeko eta kontsumitzeko neurriak ezarri ditu, fabrikatzailearen informazioa eta nutrizio-informazioa oinarritzat hartuta.

e) Intoxikazio-kasuekin lotutako jardun-jarraibideak aplikatu ditu, pertsoneri eman beharreko informazioaren edukia eta inplikaturako profesionalekiko komunikazio-prozedura deskribatuta.

3.- Etxeko pertsonen eta ondasunen segurtasunaren arloko ohiko arrisku-egoerak prebenitzeko lehen esku-hartze neurriak aplikatzen ditu, ingurunea eta bizikidetzaren unitatearen ezaugarriak balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ondasunen eta pertsonen segurtasunarekiko balizko arriskuak identifikatu ditu (lapurretak, erasoak, pertsonen gainera objektuak iraultzea etxe barruan edo kanpora, besteak beste) ingurune jakin batean, eguneroko ohiturak eta ohiko arriskuak bizikidetzaren unitatearen informazioaren arabera balioetsita.

b) Arrotzak sartzea (etxean norbait dagoenean edo inor ez dagoenean) saihesteko neurriak aplikatu ditu, erakunde eskudunen gomendioetatik datozen protokoloak aplikatuta.

c) Etxean edo etxetik kanpora objektu arriskutsuak iraultzea saihesteko neurriak aplikatu ditu, eraginpean hartutakoek izan ditzaketan arriskuak eta ondorio juridikoak balioetsita.

d) Aseguru-polizek biltzen dituzten prestazioak deskribatu ditu, etxeko jardueren eta erantzukizun zibilaren arloan aplikatzeak dituen onurak balioetsita.

e) Etxeko pertsonen eta ondasunen arrisku- eta segurtasun-egoerekin lotutako jardun-jarraibideak aplikatu ditu, pertsoneri eman beharreko informazioaren edukia eta inplikaturako profesionalekiko komunikazio-prozedura deskribatuta.

4.- Lehen esku-hartzearen lehen sorospenekin lotutako teknikak aplikatzen ditu, protokolo aplikagarriak deskribatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Norberari gertatutako istripuak balioesteko irizpideak aplikatu ditu.

b) Arnasbidearen buxadura kentzeko teknikak deskribatu ditu elementu simulatuetan aplikatuta.

c) Lehen esku-hartzearen lehen sorospeneko teknikak deskribatu ditu eta elementu simulatuetan aplikatu ditu, ezarritako protokoloari jarraikiz.

d) Bihotz-biriketako bizkortzerako oinarritzko teknikak deskribatu eta aplikatu ditu manikietan, eta bidezkoa izan denean, baita teknika instrumentalak ere, oxigenoterapiako ekipoa eta desfibriladore automatikoa erabilia.

e) Lesio, patologia edo traumatismo esanguratsuenen arrazoiak, sintomak, jardun-jarraibideak eta prebentzio-alderdiak deskribatu ditu, jarduera kontuan hartuta.

f) Eragile fisikoek, kimikoek edo biologikoek eragindako premiazko patologia organikoen eta lesioen simulazioetan lehen esku hartzeko lehen sorospenek aplikatu ditu.

g) Istripua izan duen pertsonarekin eta harekin daudenekin oinarritzko komunikazio-estrategiak deskribatu ditu, oinarritzko emozio-egoerekin lotuta.

h) Dolu, antsietate, larritasun edo oldarkortasuneko balizko egoeretan aplikagarriak diren oinarritzko teknikak deskribatu ditu.

B) Edukiak:

1.- Etxeko instalazioekin zerikusia duten prebentzio-neurriak

Argiaren, uraren eta gasaren etxeko instalazioen planoen eta krokisen irakurketa.

Instalazioei lotutako arriskuak: deskarga elektrikoak. Etxeetako uholdeak. Gasen portaera eta gasok pertsonengan duten eragina. Adinagatik edo muga fisikoa izateagatik arrisku handiena duten pertsonak dituzten arrisku ohikoenak.

Etxeko eroanbide elektrikoaren eta ur-eroanbideen oinarriko mantentze-lanak eta konponketak.

Instalazio elektrikoaren entxufeak, etengailuak eta argi-puntuak.

Txorrotak eta hustubideak. Motak, osagaiak eta doitzeko eta ordezkatzeko prozedurak.

Etxeko eroanbideekin lotutako istripuak saihesteko baliabideak.

Uholdeetan esku hartzeko jarraibideak.

Gas-ihesetan esku hartzeko jarraibideak.

Aseguruaren estaldurak eta mantentze-zerbitzuak etxeko eroanbideetan gertatutako istripuen, hausturen edo isuriaren kasuan.

Etxe-aseguruak eta etxeko eroanbideak mantentzeko eta konpontzeko zerbitzuak.

Arriskuaren balioespena eta larrialdi-zerbitzuei komunikatzeko protokoloak.

2.- Produktu toxikoekiko edo elikagaiekiko esposizioarekin edo halakoak irenstearekin lotutako prebentzio-neurriak.

Etxeko produktu toxikoak. Osaeraren eta arrisku potentzialaren arabera sailkapena.

Produktu kimikoen isuriak konpontzeko jarraibideak etxeko eremurako.

Produktu toxikoak kontserbatzeko, birjartzeko eta ordezkatzeko plana.

Arriskuaren balioespena eta larrialdi-zerbitzuei komunikatzeko protokoloak.

3.- Etxeko pertsonen eta ondasunen segurtasunaren arloko ohiko arrisku-egoerekin lotutako prebentzio-neurriak

Etxeko pertsonen eta ondasunen segurtasunaren arloko arriskuak, bizikidetzaren unitateen osaeraren arabera.

Arrotzak sartzeko jarraibideak.

Jardun-jarraibideak ondasun-lapurretaren kasuan.

Etxe barruan objektu arriskutsuak iraultzeko jarraibideak.

Etxetik kanpora objektu arriskutsuak iraultzeko jarraibideak.

Aseguruak: motak eta estaldurak.

Estaldurak aplikatzea eskatzeko kudeaketak. Dokumentazioa.

Arriskuaren balioespena eta larrialdi-zerbitzuei komunikatzeko protokoloak.

4.- Bizi-euskarriko teknikak eta lehen esku-hartzearen lehen sorospenak

Hemorragiak. Motak.

Erredurak. Motak.

Bendajeak. Motak.

Bizkortzea.

Ahotik ahorrako arnasa.

Ustekabean irentsitako elikagaiak, likidoak edo objektuak, besteak beste, ateratzeko teknikak.

Larrialdietarako jardun-protokoloa: gaixoaren hasierako ebaluazioa, jardunaren plangintza, kokapena eta iristeko moduak, balizko arriskuak identifikatzea, eremua babestea eta istripua izan duenarengana iristea.

Lehen sorospenetako botikina: tresnak, sendabide-materiala, oinarriko sendagaiak.

Lanbide-modulua: Makinekin garbitzea

Kodea: 3116

Kurtsoa: 2

Iraupena: 72 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Garbiketa industrialeko eta zoruaren tratamendurako prozedurak zehazten ditu, makinak, osagarriak eta produktuak zoladuraren eta haren gainazalaren ezaugarrien arabera hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Garbitu beharreko gainazalak estaltzen dituzten materialen arabera sortzen eta metatzen diren zikinkeria motak identifikatu ditu, garbiketa egiteko esku-hartze desberdinak eraginez.

b) Zoruak garbitu eta tratatzeko prozedurak deskribatu ditu: ekortzea, garbitzea, desugertzea, ezkoztatzea, distiraraztea/beiraztatzea, xurgatzea eta orraztea, besteak beste, eta aplikatzen diren gainazal motekin lotu du.

c) Ekipoak identifikatu eta sailkatu ditu.

d) Aplikazio nagusiak identifikatu ditu, egiten dituzten lanekin lotuta.

e) Makina eta ekipo desberdinen arteko loturak egiaztatu ditu, eta hutsegiteak ikusi direnean zuzendu egin dira.

f) Erabiltzaile-mailako mantentze-lanak egin ditu, ekipoen funtzionamendua bermatzeko.

g) Behar diren segurtasun-neurriak hartu ditu, ekipamenduak piztetik eta itzaltzetik etorritako lan-arriskuak ekiditeko.

h) Ergonomiako eta lan-osasuneko irizpideak kontuan hartuz kokatu ditu ekipoak.

2.- Zoruak makina industrialak eta haien osagarriak erabiliz ekortzen ditu, garbiketaren funtzionamendua eta kalitatea balioetsita eta garbitu beharreko gainazalaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ekortzeko makina motak eta garbiketa-osagarriak eta -lanabesak identifikatu eta sailkatu ditu, haiek ematen dituzten aukerak, erabiltzeko modua eta aplikazio-prozesuak adierazita.

b) Ekortzeko makinaren garbiketa-prozedurak deskribatu ditu.

c) Aplikazio nagusiak identifikatu ditu, egiten dituzten lanekin lotuta.

d) Ekortzeko makinaren konexioak egiaztatu ditu, eta hutsegiteak ikusi direnean zuzendu egin dira.

e) Mantentze-lanak egin ditu, ekortzeko makinaren funtzionamendua bermatzeko.

f) Behar diren segurtasun-neurriak hartu ditu, ekipamenduak piztetik eta itzaltzetik etorritako lan-arriskuak ekiditeko.

g) Ergonomiako eta lan-osasuneko irizpideak kontuan hartuz maneiatu du ekortzeko makina.

3.- Zoruak makina industrialak eta haien osagarriak erabiliz garbitzen ditu, garbiketaren funtzionamendua eta kalitatea balioetsita eta garbitu beharreko gainazalaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Garbitzeko makina motak eta garbiketa-osagarriak eta -lanabesak identifikatu eta sailkatu ditu, haiek ematen dituzten aukerak, erabiltzeko modua eta aplikazio-prozesuak adierazita.

b) Garbitzeko makinaren garbiketa-prozedurak deskribatu ditu.

c) Aplikazio nagusiak identifikatu ditu, egiten dituzten lanekin lotuta.

d) Garbitu beharreko zoruaren perimetroa mugatu du, erorketak edo istripuak saihesteko.

e) Mantentze-lanak egin ditu, garbitzeko makinaren funtzionamendua bermatzeko.

f) Behar diren segurtasun-neurriak hartu ditu, ekipamenduak piztetik eta itzaltzetik etorritako lan-arriskuak ekiditeko.

g) Ergonomiako eta lan-osasuneko irizpideak kontuan hartuz maneiatu du garbitzeko makina.

4.- Zoruak hautatutako makina industrialak eta haien osagarriak erabiliz distirarazten ditu, garbiketaren funtzionamendua eta kalitatea balioetsita eta garbitu beharreko gainazalaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Zoruko argizari-hondarrak eta gehiegizko zikinkeria kentzeko desugerketa-prozedura deskribatu du.
- b) Gainazalen desugerketa egin du zorua babesteko, dagoen zoladuraren arabera beharrezkoa den teknika aplikatuta.
- c) Garbitzeko makina motak eta garbiketa-osagarriak eta -lanabesak identifikatu eta sailkatu ditu, haien ematen dituzten aukerak, erabiltzeko modua eta aplikazio-prozesuak adierazita.
- d) Ezkoztatzeko makinekin garbitzeko prozedurak deskribatu ditu.
- e) Zorua distirarazteko prozedurak deskribatu ditu.
- f) Gainazalen ezkoztatzea eta distiraraztea egin du, dagoen zoladuraren arabera beharrezkoa den teknika aplikatuta.
- g) Aplikazio nagusiak identifikatu ditu, egiten dituzten lanekin lotuta.
- h) Distirarazi beharreko zoruaren perimetroa mugatu du, erorketak edo istripuak saihesteko.
- i) Erabiltzaile-mailako mantentze-lanak egin ditu, erabilitako makineriaren funtzionamendua bermatzeko.
- j) Behar diren segurtasun-neurriak hartu ditu, ekipoak piztetik eta itzaltzetik etorritako lan-arriskuak ekiditeko.
- k) Ergonomiako eta lan-osasuneko irizpideak kontuan hartuz maneiatu du ezkoztatzeko makina.

5.- Garbiketa-makinak jardunean mantentzen ditu, dagozkion erabilera- eta mantentze-eskuliburuetan eskatzen diren jarduerak gauzatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garbiketa-eragiketekin lotutako makina, osagarri eta erreminten ezaugarriak ezarri ditu.
- b) Garbiketa-eragiketekin lotutako makina, osagarri eta erreminten aplikazioak kontuan hartu ditu.
- c) Prebentzioko mantentze-plana aplikatu du makineriaren jarraipena eta gainbegiraketa egiteko, fabrikatzailearen jarraibideen arabera.
- d) Makinak abiarazteko eta gelditzeko eragiketak ezarritako prozedurei jarraituz egin ditu.
- e) Garbiketa-eragiketekin lotutako makina, osagarri eta erreminten prestaketa- eta mantentze-eragiketak egin ditu.
- f) Garbiketa-eragiketekin lotutako makina, osagarri eta erremintak prestatzeko jardueretan egiaztatu ditu prebentzio- eta segurtasun-baldintzak.
- g) Eragiketa guztiak egin dituenean arriskuen prebentzioari buruzko araudia, laneko segurtasuneko eta ingurumena babestekoa kontuan hartu ditu.

B) Edukiak:

1.- Zoruen garbiketa industrial egiteko eta zoruak tratatzeko prozedurak

Garbitu beharreko gainazalaren sortutako eta metatutako zikinkeria motak.
Zoruak garbitzeko eta tratatzeko prozedurak.
Garbiketaren erabilitako ekipoak.
Garbiketa industrialean egiten diren ohiko eragiketak.
Ekipoak erabiltzetik datozen lan-arriskuak.
Jarrera-osasuna.

2.- Zoruak makineria industrialarekin ekortzea

Jasotzen dituen jarraibideak interpretatzea eta betetzea.

Ekortzeko makinekin erabilitako garbiketa-produktuen motak.

Garbiketa-lanak langileak beren lanpostuetan daudela edota inguruetan daudela egitea (pertsonek igarotzen diren bitartean).

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko arauak.

3.- Zoruak makineria industrialarekin garbitzea

Jasotzen dituen jarraibideak interpretatzea eta betetzea.

Garbitzeko makinekin erabilitako garbiketa-produktuen motak.

Garbiketa-lanak langileak beren lanpostuetan daudela edota inguruetan daudela egitea (pertsonek igarotzen diren bitartean).

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko arauak.

Ingurumen-osasuneko arauak.

4.- Zoruak makineria industrialarekin distiraraztea

Desugertzeko teknika.

Ezkoztatzeko teknika.

Distirarazteko-beiratzatzeko teknika.

Prozedurak, produktuak, erremintak eta makineria.

Desugertzeko, ezkoztatzeko eta distirarazteko-beiratzatzeko lanak langileak beren lanpostuetan daudela edota inguruetan daudela egitea (pertsonek igarotzen diren bitartean).

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko arauak.

Ingurumen-osasuneko arauak.

5.- Garbiketa-makinen oinarrizko mantentze-lanak

Garbiketarako erreminten eta makineria industrialaren deskripzioa.

Erabilera-prozedurak.

Makineria industrialaren prebentziozko mantentze-lanak.

Motak, egokitzapena eta araudia.

Lanbide-modulua: Bizikidetzaren unitatean mendekoak ez diren pertsonen laguntzeko jarduerak

Kodea: 3145

Kurtsoa: 2

Iraupena: 120 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Hurrei eta mendekoak ez diren beste pertsonen laguntzeko eragiketa simulatuak egiten ditu, egin beharreko jardunak hartzailearen arabera identifikatuta eta deskribatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jardun-planean edo jasotako jarraibideetan biltzen diren jarduerak identifikatu ditu.

b) Jardun-plana hurrei eta mendekoak ez diren pertsonen ezaugarriei egokitzaren garrantzia balioetsi du.

c) Hurrekin eta mendekoak ez diren pertsonekin bete beharreko premiak eta eskaerak kontuan hartu ditu.

d) Bizikidetzaren unitatearen berezko ezaugarriak errespetatu ditu.

e) Hurrei autonomia pertsonala sustatu du.

f) Ezarritako ildo eta orientabideak errespetatu ditu.

g) Agindutako zereginak jarrera positiboarekin egin ditu.

2.- Sexu eta adin desberdinetako pertsonekin komunikazio simulatua mantentzen du, jokabide

egokiarekin eta oinarrizko komunikazio-teknikak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Etxeko bizikidetzaren unitate bateko balizko kideen ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Jarrera eta diskurtsoa komunikazio-egoerara moldatu ditu.
- c) Bizikidetzaren unitateko kideei buruzko beharrezko informazioa lortu du.
- d) Komunikazioaren garrantzia balioetsi du, balizko gatazkak edo gaizki-ulertuak saihesteko.
- e) Elkarrizketa naturala izan du, bidezkoa izan denean, beharrezkoa den informazioa eta argibideak eskatuta.
- f) Besteekiko jarrera adostaile eta sentibera izan du, enpatiarekin eta amultsu eta adeitsu agertuz.
- g) Gizarte-trebetasunak lan-jardunean duten garrantzia balioetsi du.

3.- Haurren oinarrizko premiekin eta laguntza-premiekin lotutako eragiketak egiten ditu, beharrezkoak diren elikadurako, higieneko eta atsedeneko jarraibideak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Elikadura, higiena eta atsedenarekin lotutako jarduerak haurren adinak eskatzen duenarekin eta jardun-planeko baldintzekin identifikatu ditu.
- b) Menu mota nagusien ezaugarriak identifikatu eta deskribatu ditu eta haurren adinera egokitu ditu.
- c) Balizko elikadura-alergia eta -jasanezintasunak eta balizko jardunak deskribatu ditu.
- d) Haurren garbiketa, higiena, jantziak, atsedena eta loarekin lotutako jardun-jarraibideak deskribatu eta aplikatu ditu.
- e) Haurrak entretenitzeko oinarrizko jarduerak egin ditu.
- f) Ezarritako eguneroko errutinak deskribatu eta egin ditu.
- g) Haurren oinarrizko premiak artatzearekin lotutako eragiketak egin ditu, haurren ezaugarrien arabera.
- h) Haurren oinarrizko premiak betetzearekin lotutako jardueren garrantzia balioetsi da.

4.- Mendekoak ez diren pertsona helduen oinarrizko premiekin eta laguntza-premiekin lotutako jarduerak egiten ditu, jasotako jarraibideak aplikatuta eta pertsonen ezaugarriak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Elikadura, higiena eta atsedenarekin lotutako jarduerak mendekoak ez diren pertsona helduen adinak eskatzen duenarekin eta jardun-planeko baldintzekin identifikatu ditu.
- b) Menu mota nagusien ezaugarriak identifikatu eta deskribatu ditu eta mendekoa ez den pertsona helduaren adinera egokitu ditu.
- c) Balizko elikadura-alergia eta -jasanezintasunak eta balizko jardunak deskribatu ditu.
- d) Mendekoak ez diren pertsona helduen garbiketa, higiena, jantziak, atsedena eta loarekin lotutako jardun-jarraibideak deskribatu eta aplikatu ditu.
- e) Mendekoak ez diren pertsona helduen oinarrizko premiak betetzearekin lotutako jardueren garrantzia balioetsi da.

5.- Bizikidetzaren unitatearekin lotutako informazio-jarduerak gauzatzen ditu, gorabeherak jakinarazita eta ohiko komunikazioak eta mezuak izan behar duen egitura deskribatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gorabeherak jakinarazteko prozesuarekin lotutako adimen emozionalaren oinarrizko printzipioak deskribatu ditu.
- b) Sortutako gorabeherak zehaztasunez eta modu argi eta laburrean jakinarazi ditu.
- c) Burututako zereginak jasotako jarraibideen arabera deskribatu ditu.

- d) Une oro lanbide-inguruneko pertsonetikiko errespetua izan du.
- e) Ikastearen aldeko jarrera positiboa erakutsi du.
- f) Eginkizunen garapenean autokritikak duen garrantzia balioetsi du.
- g) Txukun janztearen eta irudi pertsonal dotorea izatearen garrantzia balioetsi du.

B) Edukiak:

1.- Mendekoak ez diren pertsoneri laguntzeko teknikak aplikatzea

Mendekoak ez diren pertsonen tipologia.
Haurren premiak eta eskaerak.
Mendekoak ez diren pertsonen premiak eta eskaerak.
Mendekoak ez diren pertsoneri buruzko lan-plana.

2.- Oinarrizko komunikazio-teknikak aplikatzea bizikidetzaren unitatean.

Haurrekin komunikatzea.
Adinekoekin komunikatzea.
Entzute aktiboa.

3.- Haurren oinarrizko premiak artatzea

Eguneroko errutinak planifikatzea.
Haurren menuak prestatzea.
Haurren garbiketa. Jarraibideak.
Haurren atsedena.
Haurren jantziak. Laguntzak.

4.- Mendekoak ez diren pertsonen oinarrizko premiak artatzea

Eguneroko errutinak planifikatzea. Jarraibideak.
Mendekoak ez diren pertsonentzat menuak prestatzea.
Mendekoak ez diren pertsoneri arropak eta oinetakoak janzten laguntzea.

5.- Bizikidetzaren unitateari buruzko informazioa

Agindutako etxeko lanak antolatzea eta garatzea.
Egindako jarduerari buruzko informazioa.
Gorabeherak jakinaraztea.
Gorabeherak jakinarazteko prozesuari adimen emozionalaren oinarrizko printzipioak aplikatzea.

Lanbide-modulua: Egoera berezi iragankorretan dauden pertsoneri arreta ematea
E691 kodea
Kurtsoa: 2
Iraupena: 168 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Egoera berezian dauden pertsonen eta haien ingurunearen ezaugarri eta arreta-premia nagusiak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartzearen xede diren kolektiboen berezko aldaketa biologikoak, psikologikoak eta sozialak aldaketa haiek pertsonaren eguneroko moldaeran dakartzaten zailtasunekin lotu ditu.
- b) Adineko pertsonen, gaixoen edo bestelakoen berezko narriadura pertsonalaren eta sozialaren

agerpen nagusiak identifikatu ditu.

c) Etxez etxeko laguntza-zerbitzuari eta dagokien erreferentziazko profesionalari egokitzeko aldian, egoera berezian dauden pertsonen jarrera- eta portaera-ezaugarriak, eta haien ingurunea deskribatu ditu.

d) Egoera berezian dauden pertsona eta kolektiboari zuzendutako esku-hartze sozialaren printzipio etikoak azaldu ditu.

e) Egoera berezian dauden pertsonari zuzendutako esku-hartze profesionalean izan beharreko jarrera eta balioak azaldu ditu.

f) Erabiltzailearen narriadura identifikatu du, eta horrek autonomia pertsonalean eta eguneroko moldaera oinarritzekoan, pertsonalean eta sozialean duen eragina zehaztu du.

g) Azaleratzen diren portaera profesionalak identifikatu ditu.

h) Pertsonaren eta haren ingurukoaren parte-hartzea identifikatu du.

i) Erabiltzailearekin eta haren familiarekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko jarrera profesional egokiak zehaztu ditu.

j) Erabiltzailearekin eta haren ingurukoekin ezarritako harreman-loturak (afektiboak, araukoak, nortasunekoak) identifikatu ditu.

2.- Etxebizitzan higiene pertsonaleko eta ohea prestatzeko teknikak egokitzen eta aplikatzen ditu agindupean, ohiko erabilerako produktuak, materialak eta tresnak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Osasun-egoeraren arabera pertsona batek (bereziki, gaixo dauden adinekoen, haurren edo desgaituen kasuan) behar dituen laguntza higienikoen motak zehaztu ditu, eta haren inguruneak bete beharreko higiene- eta osasun-baldintzak identifikatu ditu.

b) Larruazalaren ezaugarri anatomofisiologikoak deskribatu ditu, eta presioaren ondoriozko ultzerak sortzeko mekanismoak eta haiek sarrien agertzen diren leku anatomikoak azaldu ditu, baita prebentzio-neurri nagusiak eta haiek tratatzeko eta prebenitzeko produktu sanitarioak ere.

c) Garbitasun eta higiene pertsonaleko prozedurak deskribatu eta aplikatu ditu, baita pertsona inkontinentei edota kolostomizatuari zuzendutako laguntza bereziak ere, haiek gauzatzeko beharrezko produktuak, materialak eta laguntza teknikoak zehaztuta.

d) Protesiak garbitzeko eta zaintzeko teknikak deskribatu eta aplikatu ditu, beharrezko materialak zehaztuta, pertsona erabiltzailearen egoera eta premiak aintzat hartuta.

e) Etxebizitzan dauden ohe motak, osagarriak eta garbiketarako eta atsedenerako laguntza teknikoak azaldu eta identifikatu ditu, hurrengo erabileretarako prestatzeko eta jasotzeko teknikak aplikatuta.

f) Ohe mota bakoitza egiteko teknikak aplikatu ditu, pertsonaren "erosotasun" premiak eta baliaezintasun-maila kontuan izanda.

g) Pertsonaren premia soziosanitarioei erantzuteko jardueretan haren eta bere ingurukoaren parte-hartzea identifikatu eta sustatu du.

3.- Sendagaiak ahotik, bide topikotik eta ondestetik emateko aginduak betetzen ditu, baita bero eta hotz-tratamendu lokalak ematekoak ere.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Giza organismoaren gainean hotzak eta beroak duten eragina, eta haien indikazioak eta kontraindikazioak deskribatu ditu.

b) Sendagaiak emateko bide ohikoenen ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak deskribatu ditu.

c) Sendagaiak bide desberdinetatik emateko beharrezko materialen ezaugarriak azaldu ditu.

d) Aerosolterapiako eta oxigenoterapiako teknikak aplikatzeko prozedurak eta haiek zuzen gauzatzeko beharrezko materialak azaldu ditu.

e) Pertsonaren premia soziosanitarioei erantzuteko jardueretan haren eta bere ingurukoaren parte-hartzea identifikatu eta sustatu du, pertsonaren autonomian eta autodeterminazioan laguntzeko.

f) Sendagaiak emateari lotutako arrisku nagusiak deskribatu ditu, sendagai motaren, emateko bidearen, pertsonaren ezaugarrien eta medikuaren jarraibidearen arabera.

g) Etxez etxeko zaintzen protokoloan zehaztuta dauden bizi-konstanteak hartzeko teknikak gauzatu ditu.

h) Hainbat egoeratan, sendagaiak ahotik, bide topikotik eta ondestetik eman ditu, ezarritako jarraibideak beteta.

4.- Dieta mota desberdinak aztertzen ditu laguntzarekin eta emandako aginduei jarraikiz, erabiltzaileari aholkatzen laguntzeko, eta haren hondakinak jasotzeko teknikak aplikatzen ditu.

a) Dieta osasungarri baten osaera aztertu du, eta gizabanakoaren behar nutritibo-dietetikoak deskribatu ditu, haren ezaugarri fisiologikoak, patologikoak eta jokabidekoak kontuan izanda.

b) Eguneko eta/edo asteko menu-proposamenak prestatu ditu, erabiltzaileen ezaugarriak eta dauden agindu dietetikoak kontuan izanda.

c) Digestio-aparatuaren, aparatu endokrinoaren eta gernu-aparatuaren ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak deskribatu ditu.

d) Adinduen eta eriondoen elikaduraren berariazko ezaugarriak azaldu ditu.

e) Hainbat patologiarik aplikatutako agindu dietetikoak maneiatu ditu, eta haietako bakoitzean dietak duen eragina aztertu du.

f) Ahotik elikagaiak emateko teknikak deskribatu ditu, erabiltzailearen eta aholkatzen laguntzeko beharrezko materialen arabera.

g) Erabiltzaile mota desberdinen hondakinak jasotzeko teknika ohikoenak azaldu ditu, ezarritako arau higieniko-sanitarioak deskribatuta.

h) Aholkatzen laguntzeko teknikak aplikatu ditu, erabiltzaile bakoitzaren ezaugarriak eta premiak kontuan izanda.

i) Erabiltzaile mota desberdinen hondakinak jaso dira, premien eta ezarritako protokoloen arabera.

5.- Erabiltzailea lekualdatzeko, mobilizatzeko, posturan jartzeko eta joan-etorriak egiten laguntzeko teknikak gauzatzen ditu, emandako informazioaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gaixoa mobilizatzeko, ohean posturan jartzeko eta joan-etorriak egiten laguntzeko tekniken eta laguntza tekniken ezaugarriak eta aplikazio ohikoenak deskribatu ditu.

b) Lokomozio-aparatuaren ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak azaldu ditu.

c) Erabiltzaileari eta haren zaintzaile nagusiei behar bezala definitutako egoera jakin batzuetan irakasten, orientatzen eta parte hartzen lagundu du, hauei dagokienez: lekualdatzea, mobilizatzea, joan-etorriak egitea, posturan jartzea, laguntza teknikoak mantentzea, segurtasuna, lekualdatze-zerbitzua edo zaintzaile nagusien lesioen prebentzioa.

d) Mobilizatu, lekualdatu eta joan-etorriak egiteko teknikak aplikatu ditu, pertsonaren "erosotasun" premiak kontuan izanda.

6.- Premiazko asistentzia sanitarioko teknikak gauzatzen laguntzen du, egoeraren eta aplikagarritasun-mailaren arabera, teknika egokiena zehaztuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Traumatismoak eragiten dituzten seinale eta sintoma ohikoenak (hausturak, zaintiratuak eta luxazioak) azaldu ditu, immobilizazio-maniobra egokiak zehaztuta.

b) Dagokion mailan, bihotz-biriketako bizkortze-teknikak aplikatzeko edukiak eta sekuentziak azaldu ditu.

c) Hedaduraren eta sakoneraren arabera erredura motak azaldu ditu, premiazko asistentzia sanitarioko neurriak deskribatuta.

d) Zauri eta hemorragia motak azaldu ditu eta haien motaren eta egoeraren arabera berehala

jarduteko maniobrak deskribatu ditu.

e) Sintoma adierazgarrienen arabera intoxikazio mota nagusiak bereizi ditu, eta sartzeko bideak eta ezabatzeko metodoak zerrendatu ditu.

f) Urrutiko kontsulta batean, gertatutakoari eta istripua izan duenari buruz medikuari zer informazio eta nola jakinarazi behar zaion azaldu du.

g) Larrialdietako botikin batek bildu behar dituen materialen eta produktu sanitarioen zerrenda bat egin du.

h) Bendajeak aplikatu ditu eta ferula sinpleak jarri ditu.

i) Bihotz-biriketako bizkortzearen oinarritzko maniobrak gauzatu ditu.

j) Hainbat lekutan (bizkarrezurra, goiko gorputz-adarrak, beheko gorputz-adarrak eta politraumatismoa) kokatutako hausturak immobilizatzeko maniobrak egin ditu.

k) Hemorragiak geratzeko maniobrak egin ditu.

B) Edukiak:

1.- Egoera berezi iragankorretan dauden pertsonen ezaugarriak eta premiak identifikatzea.

Egoera berezian dauden pertsonen ezaugarriak eta premiak: eriondoak, istripua izandakoak eta gaixo iragankorrak.

Egoera berezian dauden pertsonen bizi-kalitatea, laguntza eta autodeterminazioa.

2.- Etxez etxeko arretaren eremua zehaztea

Premia bereziak dituzten pertsona eta kolektiboekin esku hartzeko printzipio etikoak.

Egoera berezi iragankorretan dauden pertsonen gaineko esku-hartzearen printzipio etikoak aintzat hartzea.

Konfidentzialtasuna informazio pertsonala eta medikoa erabiltzerakoan. Egoera berezi iragankorretan dauden pertsonen intimitatearekiko errespetua.

Etxez etxeko laguntzako profesionalaren higieena eta presentzia fisikoa mantentzea.

Pertsonentzako erabateko laguntza. Laguntza leuntzeko teknikak.

Laguntza-erlazioaren dinamika: egokitzapena, zailtasunak, mugak eta arrisku psikologikoen prebentzioa.

Dolu-egoeretako esku-hartzea.

Laguntza fisikoko jardueren bilakaera funtzionala eta garapena behatu eta erregistratzea. Etxez etxeko egoeretan aplikatzen diren behaketa-teknikak eta -tresnak.

Zaintza eta higieena pertsonalerako laguntza-teknikak.

3.- Egoera berezi iragankorretan dauden pertsonen higieena- eta garbiketa-teknikak aplikatzea.

Larruazaleko organoaren printzipio anatomofisiologikoak eta gorputz-higieenaren oinarriak.

Patologia ohikoenak.

Gorputz-garbitasun eta higieerako teknikak etxez etxeko laguntza tipologiaren arabera.

Presioaren ondoriozko ultzerak. Prebentzioa eta tratamendua.

Paziente inkontinentearentzako eta kolostomizatuarentzako zaintzak.

Infekzioen prebentzioa eta kontrola.

Egoera berezi iragankorrean dagoen pertsonaren eta haren ingurunearen autonomia sustatzea, higieena eta garbitasuna hobetzeko.

4.- Elikadura-teknikak erabiltzea

Ahotik eta bide enteraletik elikatzea.

Ahoratzeko laguntza teknikoak.

Ahoratzen laguntzea.

5.- Hondakinen bilketa Hondakinak biltzeko baliabideak eta materialak.

Hondakinen ezabaketa.
Arau higieniko-sanitarioak.
Norberaren higieua eta presentzia fisikoa mantentzea.
Mendeko pertsonaren eta haren ahaideen intimitatearekiko errespetua.

6.- Sendagaiak etxean bertan ematea

Metabolismoaren bilakaera bizi-zikloan.
Farmakologia orokorraren printzipioak.
Sistema kardiobaskularren, arnasakoaren eta irazlearen printzipio anatomofisiologikoak.
Lotutako patologia.
Bizi-konstanteak.
Sendagaiak prestatzeko eta ahotik, bide topikotik eta ondestetik emateko teknikak.
Aerosolterapiako eta oxigenoterapiako teknikak.
Hotza eta beroa aplikatzeko teknikak.
Farmakoen arriskuak.
Botikinak eratztea eta mantentzea.

7.- Egoera berezi iragankorretan dauden pertsonen mobilitatea

Giza gorputzaren sostengu- eta mugimendu-printzipio anatomofisiologikoak.
Lokomozio-aparatua.
Lokomozio-aparatuaren patologiarik ohikoenak.

8.- Mobilizatu, lekualdatu eta joan-etorriak egiteko teknikak erabiltzea

Jarrera anatomikoak.
Egoera berezi iragankorretan dauden pertsonentzat, joan-etorriak egin, lekualdatu eta mobilizatzeko teknikak eta laguntza teknikoak.
Ohean posturan jartzeko teknikak.
Egoera berezian dagoen pertsona eta haren zaintzaile nagusiak orientatzea.
Egoera berezian dagoen pertsonaren eta haren ingurunearen autonomia sustatzea, mobilitatea eta egoera fisikoa hobetzeko.

9.- Bizi-konstanteak hartzea

Temperatura.
Arnas maiztasuna.
Arteria-presioa.
Bihotz-maiztasuna.
Aurrekoak jasotzea.

10.- Segurtasuneko eta lehen sorospeneko teknikak aplikatzea

Lehen sorospenak.
Intoxikazioak.
Traumatismoak. Heskailuak jartztea eta immobilizazioak.
Bihotz-biriketako bizkortze-teknikak.
Erredurak.
Zauriak eta hemorragiak.
Intoxikazioak.
Larrialdietako botikina.
Urruneko kontsultak.
Mendeko pertsonaren ingurunean arriskuak prebenitzea.
Autobabeseko neurriak.

Lan-arriskuen prebentzioari arreta berezia eskaintzea.

Lanbide-modulua: Zientzia aplikatuak I.

Kodea: 3009

Kurtoa: 1

Iraupena: 165 ordu.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.- Estrategia desberdinak erabiltzen ditu zientziarekin eta matematikarekin erlazionaturiko ohiko problema errazak konpontzeko, metodo zientifikoaren faseak aplikatuta eta irmotasuna, segurtasuna eta autonomia erakutsita soluzioak bilatzean.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hipotesi errazak proposatu ditu, zuzeneko behaketetan edo hainbat bidetatik bildutako zeharkako behaketetan oinarrituta.
- b) Hipotesiak aztertu, eta bere azalpenarekiko lehen hurbilketa egin du.
- c) Problema ebazteko estrategiarik egokiena erabili du.
- d) Zer urrats eman dituen eta zer ondorio atera dituen azaldu du.
- e) Egindako hipotesiak egiaztatu edo gezurtatu ditu, eta frogen bidez defendatu du bere jarrera hori.
- f) Irmotasunez eta sormena baliatuta jokatu du eragozpenak gainditzeko prozesuan, eta bide alternatiboak topatu ditu bere kabuz.
- g) Talde-lanean jardun du, elkar lagunduz, eta gatazkak konpontzeko trebetasunak badituela azaldu du.
- h) Ezagutza zientifiko eta matematikoak baliatu ditu, fenomeno natural garrantzitsuenak interpretatzeko.
- i) Datu eta informazioak bilatu, bildu eta antolatzeko teknikak baliatu ditu, eremu zientifiko eta matematikoko problemak ebazteko.
- j) IKTak erabili ditu, informazioa bilatzeko.
- k) Zuzen adierazi ditu mezu zientifiko eta matematikoak.
- l) Behar bezala erabili ditu hiztegia eta esamolde espezifikokoak, baliabide grafikoak eta sinbologia.
- m) Jarrera kritikoa izan du lortutako emaitzei eta jarraitutako prozesuari dagokienez.
- n) Baliozkotasuna eta koherentzia egiaztatzeke hainbat estrategia baliatu ditu.
- ñ) Bere ikaskuntza autoerregulatzeko estrategia eta tresnak baliatu ditu.

2.- Gidoi bati jarraikiz, ikerketa eta laborategiko praktika errazak egiten ditu; horretarako, hainbat teknika aplikatzen ditu, materiala behar bezala erabili, magnitude egokiak neurtu, eta emaitzak interpretatu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laborategiko oinarritzko materialaren zerrenda egin du, izan ditzakeen aplikazioak ere jasota.
- b) Laborategiko produktu eta tresnak behar bezala manipulatu ditu.
- c) Magnitudeak neurtu ditu, eta dagozkien unitatetan adierazi.
- d) Egin behar duen teknika esperimental bakoitza identifikatu du.
- e) Egin behar duen teknika esperimental bakoitzean, kontuan izan ditu higiene- eta segurtasun-baldintzak.
- f) Lan esperimentalean segurtasunaren oinarritzko arauak onartu eta bete ditu, eta erabili dituen tresnak eta materiala zaindu ditu.
- g) Hipotesi erraz eta egiaztagarriak egin ditu, zuzeneko behaketetan edo hainbat bidetatik bildutako zeharkako behaketetan oinarrituta.
- h) Hipotesiak aztertu ditu, eta bere azalpenarekiko lehen hurbilketa egin du.

- i) Metodo eta prozedura esperimental erraz eta askotarikoak planifikatu ditu hipotesia gezurtatzeko edo egiaztatzeko.
- j) Informazioa biltzeko hainbat teknika baliatu ditu, lanaren edo ikerketaren helburu eta xedeak aintzat hartuta.
- k) Antolatu eta interpretatu egin ditu datu esperimentalak, hainbat baliabideren laguntzarekin.
- l) Azalpen arrazoituak eman ditu, hipotesia berresteko edo gezurtatzeko asmoz.
- m) Ikerketaren emaitzen berri eman du, eta txostenak egin ditu hainbat baliabide eta euskarri analogiko eta digital baliatuta.
- n) Lan zientifikoa antolatu du, ordenari eta zehaztasunari eutsita.
- ñ) Informazioa hainbat formatutan bilatu, kontsultatu eta erabili du.
- o) Egoki erabili du hiztegi zientifikoa.

3.- Materiak naturan izaten dituen forma guztiak aintzat hartuta, materiaren funtsezko propietateak identifikatzen eta deskribatzen ditu, magnitude fisikoak eta oinarrizko unitateak sistema metriko hamartarrean erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Materiaren propietateak deskribatu ditu.
- b) Luzeraren, masaren eta edukieraren unitate-aldaketak egin ditu.
- c) Bolumenaren eta edukieraren unitateen arteko baliokidetasuna identifikatu du.
- d) Eguneroko egoeretan neurketak egin ditu, eta notazio zientifikoaren bitartez adierazi du emaitza, Nazioarteko Sistemako unitateetan.
- e) Materiaren propietate orokorrak eta propietate bereziak bereizi ditu, eta propietate berezien bitartez substantziak identifikatu ditu.
- f) Materiak izan ditzakeen agregazio-egoerak identifikatu ditu.
- g) Materiaren egoera-aldaketak identifikatu eta izendatu ditu.
- h) Eredu zinetiko-molekularra erabili du egoera-aldaketak azaltzeko.
- i) Substantzia baten agregazio-egoerak zeintzuk diren bereizi du, fusio- eta irakite-tenperatura jakinda.
- j) Irakitearen eta lurrunketaren arteko aldeak zehaztu ditu, adibide errazen bitartez.

4.- Nahaste sinpleen osagaiak bereizteko metodo egokiena erabiltzen du, nahastearen oinarrian dagoen prozesu fisiko edo kimikoarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Adibide errazen bitartez, sistema material homogeneoak eta heterogeneoak identifikatu ditu.
- b) Substantzia puruak eta nahasteak zer diren identifikatu eta deskribatu du.
- c) Substantzia puruen eta nahasteen arteko desberdintasun nagusiak zeintzuk diren adierazi du.
- d) Prozesu fisikoak eta kimikoak bereizi ditu.
- e) Substantzien zerrenda batetik, nahasteak, substantzia sinpleak eta konposatuak hautatu ditu.
- f) Nahasteak bereizteko metodo errazak aplikatu ditu modu praktikoan.
- g) Lanbideekin lotura duten materialen oinarrizko ezaugarri orokorrak deskribatu ditu, IKTak erabilia.
- h) Talde-lanaren aldeko jarrera agertu du.

5.- Ohartzen da energia dagoela prozesu naturaletan, eta bizitza errealeko fenomeno errazak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aldaketak egiteko ahalmenarekin lotu du energiaren kontzeptua.
- b) Energiaren esku-hartze agerikoa duten eguneroko bizitzako egoerak identifikatu ditu.

- c) Organismoari eta bizitzari eustearekin lotutako prozesuen artetik, energiak egiteko garrantzitsua betetzen duen prozesuak deskribatu ditu.
- d) Energia magnitudetzat definitu du, eta badaki energia neurtzeko zer unitate erabiltzen diren.
- e) Energiaren unitate-aldaketak aplikatu ditu.
- f) Beroa eta tenperatura bereizi ditu.
